

Leku bat omen zuen

MAITANE PEREZ





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MAITANE PEREZ

Leku bat omen zuen

*Leku bat omen zuen mundu horretan,
joan beharra dauka,
"maite zaitut eta dena esanda dago,
banoa lasai".*

Xabi Bandini

Amasa-Villabonako jendeari, oparitutako elkarrizketa, hitz, istorio, keinu, besarkada guztiengatik, etxean bezala sentiarazteagatik, zuen herriaren parte izaten uzteagatik, eskerrik beroenak.

Abuelo Victorrentzat, zure hegaldiak utzitako hutsunean sortutako kontakizuna, zuretzat.

1. ATALA

Basurdearen gorpua errepidean etzanda zegoen. Errei oso bat hartzen zuen, gorputz handi, puztu horrek. Gauaren iluntasunean animalia estaltzen zuen odolak distira berezia ateratzen zuen kotxearen argiekin. Odol asko zegoen, animalia iren ilea dena bustita. Iratik begiak ikusi zizkion, haginak, sudurra, haren ondotik pasatzerakoan. Ez zuen denbora nahikoa izan oraindik arnasten ote zuen edo erabat hila ote zegoen ziurtatzeko.

Begiak ireki-irekita, arreta errepidean eta foralek ematen zizkioten aginduei kasu eginez, animalia atzean utzi eta bidea jarraitu zuen. Arnasa azkartu zitzaion, momentuan mantendutako kalma desagertu eta urduritasuna etorri zitzaion, inpresioa. Leihoak ireki zituen gaueko aire epela kotxean sar zedin, eta pixkanaka azeleratuz joan zen, autobidean eskatzen den abiadura minimoa hartu arte. Ez zion pedalari gehiago zapaldu, hor mantendu zen, arnasa berreskuratu eta begien azpiko dardara desagertu arte.

Lagun batzuek Iruñean antolatutako erakustaldi batetik zetorren, gogorik gabe egindako ateraldi bat, asteko lan guztiaz nekatuta. Erakustaldiaren ondoren agurrak, pote batzuk, lagunei aitzakiaren bat azaldu eta kotxea hartuta bidean jarri zen, dagoeneko gaua itxia zenean.

Donostiara heldu zenean berandu zen, espero zuena baino beranduago. Larunbat gaua eta hirian festa giroa nabaria zen, udako azken egunetan eguraldi epela eskertzen duten horien guztien zarata. Iratik begiak igurtzi zituen lehenengo semaforoan gelditzerakoan, eta ondoko eserlekuan botata zituen gauzak poltsan sartzen hasi zen, aparkatzerakoan lehenbailehen kotxetik atera ahal izateko. Aparkatzeko lekua erraz topatu zuen, bere harridurarako, eta minutu gutxiko kontua izan zen kotxea itzali, giltza atera, poltsan azken gauzak bildu, kotxetik atera, kotxea itxi eta portalean sartzea.

Arrautzak besterik ez zituen tortilla bat afaldu zuen, mugikorreko mezuak begiratzen zituen bitartean. Villabonako kuadrillako taldean mezu mordoa egon zen egun guztian zehar, baina ez zien kasu gehiegirik egin. Orain ere ez. Eskola garaiko lagunak hurrengo egunerako plana antolatzen ari ziren, eta bera ere gonbidatua zegoen, noski. Ez zen joango baina. Urteak ziren herria zapaltzen ez zuela.

Gainetik begiratu zituen mezuak, hurrengo egunerako alarma deskonektatu eta mugikorra mahai gainean utzi zuen. Gelara bidean garbitu gabekoa ikusi zuen sukaldean, komunean garbigailuko atea irekita eta esekitzeko zain zeuden arropak ere, baina atea ixtearekin ezabatu zuen irudia bere aurretik. Korridorean geratu zen momentu batez, pisuan zegoen isiltasuna entzuten, aspaldidanik bakarrik bizi bazen ere ohitu ezineko isiltasun hura.

Ohean sartu zenean oraindik autobideko basurdeak eragindako dardara zeukan hanketan. Begiak irekita egon zen une batez. Eskuarekin kopetako izerdi tantak lehortu zituen eta buelta erdia eman zuen, buruko bat hanken artean besarkatuz. Larunbata bukatzeaz zegoen eta hurrengo eguna atseden hartzekoa izango zen.

Bart gaueko Teleberrin eman zuten horren berri, Amasako Txakolindegira batzuk helikopteroz heldu zirela. Bizkaitar batzuk, Durangokoak. Aita harritu egin zen, Amasako txakolindegi hori non dagoen eta ez duela gogoratzen, eta nik baietz, ezagutzen duela, Arratzaingoko goiko partean dagoen eraikin hori dela. Orduan baietz.

“Bai, behin eo ikusi et, gauza itsusi hoi.”

Berria eman aurretik nekatuta zegoela eta lotara joan nahi zuela baina gero hor geratu zen nirekin, egongelan, eta errepasatu genituen Amasa eta Villabonako kontuak. Aitak irribarre egiten duenean ama gogoratzen dut, elkarrekin irribarre egiten zuten une horiek guztiak etortzen zaizkit junturik. Polita da aita irribarrez ikustea.

Gaur goizean nire logelatik atera naizenean bere ohean jarraitzen zuen, lo seko. Milaka aldiz esan diot komuneko atea ixteko, baina ez dit batere kasurik egiten. “Astuna zea Mirentxu”, esaten dit, baina kasurik ez. Parez pare irekita topatu dut berriz ere, nork daki gaueko zein orduatik, tutueriako usain higuigarri hori etxean zabaltzen zelarik. Bihar astelehenarekin fontaneroa etorriko dela zin egin zidaten, ea egia den.

Leihoak ireki ditut itsasoko haizea sar dadin. Gustuko dut etxeak itsas usaina hartzen duenean. Momentu bat geratu naiz itsasoari begira, hondartza hutsik eta olatu txiki batzuen soinua besterik ez. Beroa egiten zuen jada, egun astuna izango zela argi ikusten zen, arratsaldean galerna ekartzen duten horietakoa. Hori ere bart gaueko Teleberrin esan zuten, enbata abisua arratsalderako.

“Azken eunak ditteu hemen.”

Ozenki esan dut, ozenki entzuterakoan benetan onartzeko edo. Iraila hasi eta Donostiara itzuliko gara berriz ere aita eta biok. Hori da Xantiri esandakoa, bederen.

Ez dut goizero itsasoan hartzen dudana bainua hartzeko astirik izan. Gau txarrak nahastu nau. Urduri egon naiz, ez dakit esaten lo egin ote dudana. Itsasoari begira azken urteetan berdin gertatzen zaidala pentsatu dut, uda bukaera hurbildu eta Donostiara itzultzeko ideiak aztoratzen nauela. Iratik dio kasu egin behar diedala holako sentazioei, baina ni ez naiz ona halakoak interpretatzen. Alaba aspaldi ikusi ez dudala pentsatu dut orduan, beti handik hona dabil.

Orio utzi dudanean hondartzako parkinga betetzen hasia zen, nafarrak batez ere. Horregatik ahalik eta azkarren atera naiz Villabonarantz, goiz itzultzeko, karretera gainezka egon aurretik. Denbora gutxiko kontua izango zen, aitarentzat pastak erostera joan nahi nuen, hainbeste gustuko dituen horiek, Amasa kafetegikoak.

“Ochentaynueve betekottut, ochentaynueve!”

Aurreko urtebetetzetik errepikatzen zuen gauza bera. Pastak pozik hartuko zituela ziur nintzen.

Ahaztuta neukan zenbat gustuko dudana kafetegi hori, leku hori, zein gustura egoten naizen beti bertan. Aspaldi ez nintzela han egon, aspaldi ez nintzela herrira itzuli. Lehenago bisitak ohikoak ziren, gurasoak bertan bizi zirenean, baina aita nirekin Donostiara eraman nuenetik ez dut momentua ikusten, ez dut aitzakia aurkitzen, jaiotako herrira itzultzeko aitzakia bat beharrezkoa balitz bezala.

Pastak erosi ondoren kafesnea eta txokolatez betetako kruasan horietako bat eskatu dut, jada bertan egonda gosari goxo bat hartzeko gura sartu zait. Gainera Izaskuni deitu eta berehala etorriko zela esan dit.

“Kruasan horrek txokolate pila auka barrun, esajeratubak dia, serbilleta beharkozu!”

Ziur nengoen kafetegiko langile hura ezagutzen nuela, baina ez nekien izena ondo esango ote nuen, askotan ahazten baititut izenak azkenaldian. Horregatik ez ezagutu izanarena egin dut, badaezpada.

Terrazara atera naiz. Aulki metalikoen soinua txorien kantuekin nahasten zen, jende mordoak kafea hartzen, tostadak, kruasanak, azken opor egunak aprobetxatzen gazte ugari, agureak, familiak, kale berrian kotxe gutxiren batzuen zarata, definitu ezinezko kolorea duen elizako kanpaien soinua. Kafetegiko terraza mugatzen duen koxkan Joxe zegoen eserita, beti bezala, alde guztietara begira, bera bezain zaharra den txapela hori buruan.

Ez dakit noiz izan zen kafe bat halako lasaitasunez hartu nuen azkeneko aldia. Dena dira eginbeharrak, presak, ez du ematen erretiratzeak atsedena ekartzen duenik. Lehenago lanpetuago nembilen baina gauzak beste modura antolatu, edo nik zer dakit, gauza gehiago egiteko aukera izaten nuen.

Inguruan zegoen jendea aztertzen aritu naiz, ama eta alaba ematen zuten bi, batez ere. Ez nekien alaba eta ama ote ziren, baina nik hala erabaki dut. Alaba haserre zirudien. Ezin nituen entzun amari esaten zizkionak baina ez zirudien oso hitz politak zirenik. Ama tente-tente zegoen, alaba serio entzuten, txintik esan gabe. Ni baino gazteagoa zen ama hori, Irati baino gazteagoa alaba. Hala ere, eszenak nahigabetu egin nau.

Irati Gasteizera bigarren karrera ikastera joan zen urte berean nik Donostiako lanpostua hartu nuen. Bizilagun eta familiako askoren “pozten naiz” eta “ze atrebittua zean” horien atzean ironia asko jasan nuen. Horretarako zaharregia nintzela eta erretiroa gertu izanik holako erokeria bat egiteak herriko jendea aztoratu zuen. Nebak, batez ere. Aitak ez zuen deus esan,

amak ere ez, baina laguntza eman zidaten. Iratik ere ez zuen ezer esan, eta horrek mina eman zidan.

Geroz eta gutxiago ikusten genuen elkar. Arrasaten unibertsitatean egon zen bitartean oraindik etxera etortzen zen asteburuetan, gehienetan. Gasteizera aldatu zenean ordea, bertan geratzea erabaki zuen. Naturala zela eta onartu behar nuela, eta onartu egin nuen. Baina faltan botatzen nuen. Egunero joan eta etorri ibiltzen nintzen ni Villabonatik Donostiara eta buelta. Aita edo ama gaixorik zeuden egunetan lanera faltatzen nintzen, anaiek ezin zuten haien lanetan eguna eskatu. Nekatuta ibiltzen nintzen, baina zoriontsu nintzen, pozik nengoen. Azkenean atsegin nuen lanpostu batetan nengoen, nire azken lan urteak benetan gustuko nuen horretan ematen. Iratiren isiltasuna, baina, mingarria zitzaidan.

Gasteizera bisitan joan nintzaionean tren geltokira etorri zen nire bila. Muxu eman zidan, besarkada estua, beti egiten duen bezala. Jatetxe batera joan ginen, alde zaharreko kale estu horietako batean.

“Gustoa zaude, mattia?”

Baietz, hiria, unibertsitatea, giroa, dena maite zuela. Idazle bat ezagutu zuela, gustuko zuela, eta begiak argitu zitzaizkion. Denak kontatu zizkidan, ikasketak, lagunak, ateraldiak. Bazkaldu ere ondo bazkaldu zuen. Izokin-koloreko jertse fin bat zeraman jantzita, ezpainak margotuta, eder ikusi nuen.

Nik Donostiakoak kontatu nizkion, nire egunerokoak hainbeste emozio ez bazituen ere, laneko kontuak eta sentitzen nuen poza transmititzen saiatu nintzen. Irribarre egiten zuen berak, baina burua beste nonbaiten zeukala iruditu zitzaidan. Lagun batzuk topatu zituen gero, haiekin hizketan egon zen tartetxo batez, nik haragia bukatzen nuen bitartean.

“Nolatan animatu zifan unibersitatean sartzea berrogeita bost urtekin?”

Ezustean harrapatu ninduen, postrea ahoan sartzen. Txikia zen bera erabaki hura hartu nuenean eta ez omen zuen gogoratzen nola izan zen momentu hura niretzat. Hurbiltasuna sentitu nuen, alabak nire barnekoak ezagutu nahi zituela, interesa zuela. Kontatu nion, Salbadoran lan egiteaz nazkatua nengoela, erizain izan nahi nuela, hori izan zela beti nire

ametsa baina gaztetan ez nuela aukerarik izan, eta heldutan erabaki hori hartzean kritika asko jaso nituela. Orduan ere.

“Ordun ere. Oain bezela.”

Errepikatu egin nuen, bere ahotsetik zeozer entzun nahian, kontra edo alde, zeozer. Ez zuen deus esan. Galdetu zizkidan unibertsitatea nolakoa zen garai hartan eta lagunak egin ote nituen. Baietz nik, eta mandarinazko sorbetea edan nuen.

Treanean bueltan lo egiten saiatu nintzen, baina ezin izan nuen. Amari deitu nion, dena ondo ote zegoen jakiteko. Ezagunak ziren paisaiak pasatzen ikusten loak hartu ninduen azkenean. Trenetik jaisterakoan mezu bat neukala ikusi nuen, Iratirena.

“Barkatu ne gauzatan naolako ta asko hitzeten detelako nei buruz. Harro nao zutaz, ama.”

Amasa kafetegiko alaba horrek eskuak luzatu ditu mahai metalikoaren gainetik eta amak hartu dizkio. Bata besteari begira geratu dira unetxo batez. Gero, buruarekin baiezkoa egin dute biek, motel, elkarrekin erabaki garrantzitsu bat hartu izan balute bezala. Aulkietatik altxatu eta kafetegira sartu dira, kalera irteteko.

Izaskun iritsi da, azkenean. Espero nuen moduan poztu nau bera ikusteak. Denbora gehiegirik ez nuela eta azkar eskatu du kafea berarentzat, kruasanik gabe. Zer moduz eta piropo askoren ondoren familiari buruz hitz egin dugu, bere semea eta alaba eta senarra denak ondo daudela, denak Villabonan bizi direla, pena dela ni joan izana, faltan botatzen nautela. Xantiri buruz ere galdetu dit, ea zer moduz, ea elkarrekin jarraitzen genuen, eta orduan nik atzo txakolindegira helikopteroz ailegatu ziren horien kontua aipatu diot. Barre egin du,

“Imajinatzezu herrin zenbat komentatu zan!”

Koxkan dagoen Joxeri buruz broma bat egin dugu gero, minututan zenbatuz gero zenbat urte egon ote den gizon hori hor eserita eta herri guztiaren berri izanen zuela dagoeneko, eta paseatzera joan gara, erreka aldera, antzina Salvadora zegoen lekura.

Eguzkiak gogor jotzen zuen jada, nahiz eta oso goiz izan oraindik, eta leku horren argitasunak momentu batez geldiarazi nau. Erreka gogoratzen dut, zikin, egun bakoitzean kolore desberdin batekoa, inguruak denak zikin, kea.

“Ta hoi aparra jun zanian!”

Eta haizeak erreka aparra altxatu eta Villabonan elurra egiten zueneko gogoratu dugu. Ustel usaineko elurra.

30 urte baino gehiago pasa zirela ordutik eta zaharrak garela jada, eta barre egin dugu, eta han aurrean erreka beste aldean ariketak egiten zituzten Zizurkilgo agure batzuei begira egon gara, hemendik urte batzuetara egingo ditugunak imajinatuz. Erreka garbiaren freskotasuna, argitasuna, jaioterrira itzultzearen sentsazioa, aspaldi sentitzen ez nuen etxean egotearena.

Baina Oriora itzultzeko ordua zen, aita agian esnatua egongo zen jada, gosaltzen seguruenik, eta pastak eraman behar nizkion.

Besarkada batez agurtu dut Izaskun, kotxea Kale Berrian aparkatua neukala eta udaltzainek isuna jarriko ote zidaten beldur nintzela, eta zaindu, eta noiz itzuliko zara, eta hitz egingo dugu.

Kaioak agertu dira zeruan, karrankan, beranduago kostaldean enbata egongo zenaren seinale.

Arraroa izan da trenetik hemen jaistea, oso arraroa. “Billabona-Zizurkil”, hainbestetan ikusitako kartela, hainbestetan atzean utzitakoa. Ez dakit zergatik etorri naizen, ez dakit zer gertatu zaidan. Gau osoa errepidean hildako basurdearen irudiarekin ametsetan egon naizela iruditzen zait, eta amorratu nau igandean astean zehar baino goizago esnatzeak.

Berriak ikusi ditut gosaltzen nuen bitartean. Amasako txakolindegira atzo helikopteroz etorritako batzuei buruz ari ziren. Pentsatu dut udan berrien faltan ibiltzen direla telebistakoak, baina zerbaitek mugitu nau barrutik. Amaren mezu bat ikusi dut telefonoan.

“Irati, goatu gaur attonan urtiak diala.”

Hogeita hemezortzi urte betetzeko, eta amak oraindik holako gauzak gogorarazi behar dizkidala pentsatzen du.

Trena hartu dut, eguneroko norabide berean, igandeetan inoiz egiten ez dudana bezala. Oso ezberdina da trena igandeetan, jende ezberdina, soinu ezberdina. Kontrako norabidean hondartzara doazen bikoteak ikusi ditut, gazte taldeak beranduago joango ziren, ez dago zertan hain goiz esnatu beharrik. Nire norabidean gutxi batzuk, ia inor, egia esanda.

Tren linea honek nire bizitzaren eremu naturala markatu duela bururatu zait, tren linea honen parte diren herriak nire bizitzaren parte ere izan direla, niretzat gertuagokoak izan direla gertuago dauden baina trenik ez duten beste batzuk baino. Trena. Tren hau. Bizitza osoa tren honen barruan eman dudana sententzia. Aitaren etxera Tolosara, amaren etxera Villabonara, lagunekin Hernanira, Tolosara, Donostiara, Ordiziara, Gasteizera ikastera, Beasainera lanera, Xantiren etxera Donostiara, aitona-amonak bisitatzen Villabonara...

Gurasoak banandu zirenean hasi zen dena. Ama Villabonan geratu eta aita Tolosara joan zen. Zazpi urte besterik ez nituen nik baina erabat giltzatuak ditut nire memorian garai nahasi hartako zenbait momentu.

Euria gogor ari zuen aita espetxetik atera zen egunean. Kotxez bidaia luzea egin genuen eta hara iristerakoan erabat liluratuta geratu nintzen aita jasotzeko zegoen jende mordoa ikustean. Ez nuen espero, ez nuen ulertzen. Hainbestetan joanak ginen ama eta biok leku gris hartara eta inoiz ez genuen inor topatu, inoiz ez genuen aurpegi ezagunik ikusi, nik ezagutzen nuenik ez behintzat.

Egun hartan ordea gauzak desberdin hasi ziren jada etxetik, aitona eta amona gurekin etorri baitziren kotxean, eta ama telefonoz entzun nuen izeba Arantxarekin hizketan haiek zein orduan atera eta zein kotxetan joango ote ziren. Ama urduri ero ibili zen etxetik goiz osoan zehar, poltsa batean gauzak sartu eta gauzak atera, niretzat inolako zentzurik ez zuten beste ekintza askoren artean. Aita espetxetik aterako zela esaten zidan behin eta berriz, aurreko guztietan entzun izan ez banio bezala. Horregatik aitona-amonak eta izeba-osabak ere etortzea ulergarria egin zitzaidan, berezia, baina zentzuzkoa. Hara iristean ordea jende mordoa zegoen, ezagunak egiten zitzaizkidan aurpegi batzuk eta inoiz ikusitako beste asko.

“Aitangatik etorri al dia?”

“Bai, Irati.”

Aita famatua zela edo pentsatu nuen momentu hartan, hori dio amak esan nuela, nire aita famatua zela. Jendeak maite zuela. Eta harro sentitu nintzen. Ez nekien gerora sentimenduek zer nolako bueltak emango zituzten aita eta bion artean.

Gasolindegia bateko jantokian bazkaldu genuen, ni aitona eta amona artean eserita, babestuta, eta kokakola edaten utzi zidan amak, lehenengoz. Nire sei urterekin urtebetetze festa baten antzeko ospakizuna iruditu zitzaidan. Baina ez zen hori. Zeozer sakonagoa gertatzen ari zen han.

“Eun bereziya da, Irati, beti goatukozu. Atta etxea dator gukin.”

Pozik nengoela gogoratzen dut bai, sentsazio hori ez zait ezabatu.

Joateari pisu handia ematen zaio, baina oso txikia itzulerari. Despedidak, doluak, horiek indar handia hartzen dute, pertsonak bere bizitza nola bideratuko duten horren ondoren, nola altxatuko diren, nola aurrera egingo dioten egunerokotasunari. Itzulera batekin denak poztu egiten gara. Itzulera ona da. Itzuleraren ondoren atsedena, poza eta zorientasuna auresuposatzen dira, listo etxean dago, itzuli da, orain dena ondo.

Denbora gutxiko kontua izan zen, ordea, poza gure etxetik desagertzea. Hasieran bai, zoriontsu ginen, pelikulak ikusten genituen elkarrekin, kalera ateratzen ginenean agurrak eta besarkadak egoten ziren beti, Aranerrekara eramaten ninduen aitak paseatu eta zaldiak ikustera. Ama lanean zegoen, aitak denbora behar zuen oraindik lana aurkitu ahal izateko. Ni pozik nengoen. Ama ere pozik egon zen denbora batez, biak zeuden pozik. Denak.

Baina itzulerak arrosa kolorekoak ez direla eta eztabaidak sartu ziren etxean, zarata, aitaren paseo luzeak, amaren ihesak. Batak bestea mintzen zuten, gauza txikiekin, nahi gabe.

Nik ere zenbaitetan mindu nuen aita, orduan ez banekien ere. Ez nuen bere autoritatea onartzen. Jolasak bai. Etxera iritsi ziren arau berri guztiak, ez. Askotan haserretzen nintzen berarekin, eta bera nirekin ere bai. Erantzunik ez zuten eta niretzat oso logikoak ziren gauzak esaten nizkion, “zu zein zea nei agintzeko”, “nun eon zea zu oain arte”. Holakoen ondoren aita eta ama elkar besarkatzen ikusten nituen sukaldean. Maite zuten elkar. Baina hori ez zen nahikoa izan. Biek gogoan zuten pertsona horren antza zuen beste norbait topatu zuten, izaera aldatuta, gauzak egiteko modu desberdinarekin, bizitako guztiak emandako aiurri konkretu eta berriekin. Ez ziren pertsona berdinak, eta ez ziren berdinak izango. Hori orduan ez nuen ulertu. Entzun, bai.

“Aldatu in zea, Joakin.”

“Beste bat zea, Miren.”

Ezin izan zuten erlazioa berreraiki. Egun batean aita Tolosara joango zela azaldu zidan, gertu zegoela, asteburu guztietan berarekin egongo nintzela. Barre egin zuen berriz ere espetxera ote zihoan galdetu nionean. Ez nuen ulertu zergatik egin zuen barre. Orain pentsatzen dut nire ahotik hura entzuteak aita mindu zuela nolabait, eta barre hura ez zela poz barre bat izan, min barre bat baizik.

Eta orduan hasi ziren nire tren abenturak. Orduan hasi nintzen Villabonatik Tolosara eta Tolosatik Villabonara hainbestetan egin izan dudana bidea egiten, hasieran lagunduta, gerora

bakarrik. Astean zehar amarekin eta asteburutan aitarekin. Horrek bere alde exotikoa zeukan, bi gela, bi etxe, bi herri, asteburuetan beti zeozer berezia. Nekatu nintzen baina.

Institutua bukatuta batxilergoa Tolosako ikastolan egin nahi zuten nire lagun gehienek. Nik haiekin joan nahi nuen, baina ez nuen astean zehar egunero aitarekin bizi nahi izan. Astean zehar Tolosan ikasi arren amaren etxera itzultzen nintzen lotara. Asteburuetan parranda zegoela eta, ere bai. Pixkanaka geroz eta gutxiago geratzen nintzen aitarekin, inoiz ez gehiago geratu arte.

Honakoan aita ez nuen bat-batean mindu, pixkanaka baizik.

Trenaren abentura gurasoekin bizitzetik lagunekin bizitzera pasa zen, ikastolara, Hernanira parranda egitera igandeetan. Inguruko gazte guztiak nahasteko tresna izan zen trena, gure trena.

Bidaia arintzeko jolas bat egiten genuen garai hartan, bidaiari bakoitza zein geltokitan jaitsiko zen asmatu behar genuen. Janzkeragatik asma genezake, hau Hernanin jaitsiko da, ziur, hau Urnietan, seguru. Eta apustuak egiten genituen. Gaur ez nuke bakar bat ere asmatuko, denak berdintsu ginela iruditu zait.

Nire eremu naturaleko geltoki horiek guztiak zeharkatu ditut gaur ere, egunero Beasainera lanera joateko egiten dudan bezala. Baina gaur ez naiz haraino iritsi. Gaur herrian jaitsi naiz. Eta hainbestetan zapal dutako geltoki honetan ikusi dut berriz ere nire burua, irla honetan, alde batera eta bestera egindako bidaia guztien aztarnak airean marraztuta.

Banku metaliko batean eseri naiz, bertigo moduko batek jota, pozaren eta ikararen arteko emozio deskribaezina. Ez nekien nora joan nahi nuen, ez nekien geltokia ukitu eta itzultzeko trena hartuko ote nuen, hondartzan izkinako arroka ukitu eta beste aldera martxa egiten den bezalaxe.

Lagunak geratuak ziren. Imanolek eta Uxoak Arratzainen duten terrenoan elkartuko ziren bazkaltzeko eta aspaldi ari zitzaizkidan konbentzitu nahian, "Irati mesedez, Irati leno bezela, Irati ze eukikozu itteko igande baten bestela". Baina nik ez nuen joan nahi, erabakita neukan, ez neukan gogorik, eta herrian agertu izana beste bultzada bati zegokion, ez nituen gauzak nahasiko. Bisita azkar bat gehienez eta Donostiara itzuliko nintzen biharko gauzak prestatzera.

Mugitzea erabaki dut, geroago pentsatuko nuen nora. Eskailerak jaitsi, Zizurkilgo geltoki ondoko auzoa zeharkatu eta errebara heldu naiz. Han, errebaren bestaldean, erakusleiho batean dotore ipini duten jostailuzko herria ematen du Villabonak. Nire herriak jostailu batek bezala separatu daitezkeen piezak izango balitu dena errazagoa izango litzateke, pentsatu dut. Trenaren txistua entzun da, txistu hori. Eta kaioen karranka, kostaldean ekaitza egongo zenaren abisua.

Amasako txakolindegiko irudiak pantailan agertu ziren berriro ere, Praixku esnatu eta logelako telebista txikia piztu zuenean. Arreta handiz geratu zen gizona telebistari begira. Eskuek dardar egin zioten pixka batean eta pentsatzen geratu zen, ohean eserita, Edurne emaztearen ohe hutsa eta ukitu gabea bere aurrean. Hamar minutu eman zituen horrela, deus egin gabe, bere buruarekin gelako bakardadean. Gero, segurtasunez altxatu, telebista itzali, mandoa mahaitxoaren gainean utzi eta komunera joan zen.

Atea itxita zegoen eta indarra egin behar izan zuen ondo funtzionatzen ez zuen heldulekua mugitzeko. Irekitzea lortu zuenean tutueria usaiak gogor kolpatu zuen. Iturginak hurrengo egunean etortzekoak zirela esanda zion Miren alabak, ea honakoan egia ote zen. Bukatzerakoan atea irekita utzi zuen, heldulekua mugitzeak suposatutako esfortzua zela eta hurrengorako gauzak erraztearren.

Egongelako leihoak irekita zeuden eta itsasoko haize leuna sartzen zen barrura. Irribarre egin zuen gizonak emaztearen argazkia goizero bezala laztantzen zuen bitartean, eta leihotik hurbilen zegoen apalean ipini zuen.

“Goizian itsasondon, gauian barrun, hotzik ez hartzeko.”

Miren bilatu zuen sukaldean, eta bere logelan, baina ez zegoen etxean. Alaba azkenaldian leku guztietan egoten zen etxean ez ezik. Zailtasunez lurrera eroritako egutegia altxatu eta mahai gainean utzi zuen, okerreko hilabetean irekita. Pasabidera atera zen gero, eta han geratu zen momentu batez, geldi-geldirik, erabakiak hartzen dituenaren seriotasuna begitartean. Orduan, barruko zerbaitek bultzaturik, sukaldera itzuli, nota bat idatzi eta mahai gainean zegoen azukrepotearen azpian harrapatuta utzi zuen, itsasoko haizeak eraman ez zezan.

Logelara joan zen, armairutik praka urdin ilunak eta koadrodun alkandora atera eta jantzi egin zituen. Pijama ondo tolestu eta ohe gaineko izkina batean utzi zuen, goizero bezala. Etxeko sarreran zituen kirol zapatila erosi berriak oinetakoak sartzeko adar luze baten laguntzaz jantzi, txapela jarri, bastoia hartu eta kalera atera zen.

Eusko-trenaren geltokian pareoz betetako zakua bizkarrean zeraman Madou agurtu zuen, eta hondartzara zihoazen auzoko batzuk ere bai. Bere eremu naturaletik kanpo dagoen norbaitek bezala begiradak erakartzen zituen, eta “Praixku, ze, gaur eskursiyua?” bezalako batzuk erantzun behar izan zituen. “Bai” txiki bat soilik, gutxi hitz egitearen fama ez haustearren.

Patxadaz egin zuen bidaia Errekalderaino, lasai, leihotik begira, paisaian aldatutako guztiak aztertzen eta basoaren iluntasunaz gozatzen. Kopetako izerdia zapi batekin garbitzen zuen noizean behin eta bastoian eskuak pausatzen zituen gero. Trenetik jaitsi zenean irribarre egin zuen: lehenengo pausoa arrakastatsua izan zen.

Autobusaren zain egon zen gero. Inguruetara begiratzen zuen, kuriositatez, ezezaguna zitzaion leku hartan ezagunen bat bilatu nahian edo, kopetako izerdia gero eta maizago zapiarekin lehortuz. Pauso hau ere erraza izan zitzaion, autobusean igo, txoferrari tiketa ordaindu,

aurreko lehendabiziko eserlekuan eseri, eta Villabonaraino bidaiatu. Erraza. Hori adierazten zuen bere aurpegiko harrotasunak.

Autobusak Villabonako kale berria zeharkatzen zuen bitartean Praixkuk leihotik begiratzen zuen eta bere herriko terrazak, denda, izkina guztietan zeuden denak aztertzen zituen. Eskuek dar-dar egin zioten berriro ere. Txurrut tabernako terrazan ezagun batzuk ikusi zituen, eta kalearen beste aldean ziztu bizian ateratzen zen kotxe bat, gaizki aparkatua egoteagatik udaltzainak ia gainean zituena. Praixkuk kopetako izerdia garbitu zuen berriro ere.

Eliza okrearen ondoko paradan jaitsi, ingurura begirada luze lasai batzuk bota, eta edozein eginbeharrerako derrigorrezko lehenengo pausoa eman zuen: Zentroa tabernan sartu zen.

Taberna nahiko hutsik zegoen, goiz zen oraindik, baina nabaria zen beteko zela, mahai guztiak prest, sukaldea martxan. Marianito bat eta tortilla pintxo bat eskatu zion barrako emakume ilehoriari eta kanpora atera zen, terrazako toldo azpiko mahai bat hartzera, inork okupatu aurretik.

Herriko izkina hartan mugimendua egoten zen beti, jendea alde batera eta bestera, dendetara eta paseoan, Eliza horia, autobus geltokia, gaztelekua, plaza, Kale Berriaren bihotza zen bidegurutze hartan. Bere parean Amasa kafetegia, bertan koxka, eta koxkan eserita, Joxe. Ikusi zuenean begiak handitu zitzaizkion Praixkuri eta irribarre egin zuen. Gauzak bere tokian zeuden.

Hamaiketakoan zentratu zen gero. Aspaldi ez zuen pintxo hura jaten, aspaldi ez zuen leku hura sentitzen, momentu hura. Alaba Mirenek zuela hiru urte Donostiara harekin bizitzera eraman zuenetik lehenengo aldia zen bere taberna kuttunean zegoela, lehenengo aldia herrian bakarrik zegoela, bere kabuz, seme edo alabetako bat gainean izan gabe. Lehenengo aldia herrian bakarrik zegoela, Edurne joan zenetik. Trenaren txistua entzun zuen.

“Ze ai haiz hemen, Frantsixko?”

“Hementxe, hamaiketakua itten.”

“Familiyak permisoik eman al dik?”

“Eztek ikusten, o!”

Migel tabernara sartu zen barrezka eta Praixku mahaian geratu zer barrezka bera ere, eta trago eder bat eman zion marianitoari. Minutu batzuen ondoren Migel bueltan zen, eta lagun zaharraren ondoan eseri zen. Aspaldiko partez eta elkar ondo ikusten zutela esan zuten biek, eta gero bakoitzak bere minen errepassoa egin zuen, Praixkuk motz, beti bezala.

Migelek karpeta bat atera zuen eta bertan zeramatzan argazki zahar batzuk erakutsi zizkion Praixkuri, benetako argazkietatik ateratako fotokopia handiak, Amasa-Villabonako iraganekoak. Praixkuk ez zien argazkiei arreta handiegirik jarri, ezagutzen zituen jada, urteak ziren Migel argazki berdinekin bueltaka zebilela. Baina hitz egiten utzi zion, bere bustidura txiki guztiekin, eta irribarrea kendu ezinean egon zen lagunaren kontuek iraun zuten bitartean.

Gauza gutxi esan zituen berak, errekan aspaldi egiten ziren estropaden argazkia ikustean, “arraunian ittia iyerin jakin gabe re!”; eliza eraiki berri zegoeneko argazki bat ikustean, “eskerrak argazkin koloria eztala ikusten!”; dotore jantzitako mutil talde baten argazkia ikustean, “Villabonan bibotiak ta txaleua, jende txulua!”.

Gutxi gehiago. Baina horrelakoak ziren elkarrizketak Praixkurekin eta horrekin kontent geratu zen Migel. Biak pozik. Beste marianito bat eskatu zuen Migelek, ur baso bat Praixkuk.

“Bazpa re, geyegi ez hitzetteko.”

Oriora bueltako bidean goizean goiz baino trafiko gehiago zegoen. Uda bukaerako egun eder horrek oporrak luzatu nahi zituzten guztiak kostaldera erakartzen zituen. Miren musika jarrita lasai zihoan kotxean, Serraten bere diskorik maiteena entzuten eta kantatzen.

Andoain pasa ondoren jatetxera deitu zuen bazkaltzeko zeukaten erreserba pixka bat atzeratzeko, ordu bietatik ordu bi eta erditara. Aitak luze lo egin bazuen berandu gosalduko zuen eta azkenaldian jateko gogo gutxirekin ibiltzen zen gainera gizona. Behar ez zituen azalpenak eman zizkion telefonoaren beste aldekoari.

“Bintzako, bai.”

Deia bukatu eta dezepzioa nabaritu zitzaion aurpegian. Telefonoa hartu zuen berriro ere, auto-ilara aprobetxatuz, eta Iratiri deitu zion. Tonu bat, bi, hiru. Erantzunik ez.

Eskuak bolantean jarri eta aurrera begira geratu zen. Bazekien hala ere jatetxearenak ilusioa egingo ziola aitari, aspaldi ari zen jatetxe batera noiz joango ote ziren galdezka. Sorpresa polita izango zen. Deus berezirik gabeko jatetxe normala, eroso. Lasai egongo ziren gainera, biak bakarrik, aita eta bera. Iratik asko egiteko omen zuen, gauean etorriko zen. Bi nebak oporretan zeuden oraindik familiekin, eta Xantik aitzakia absurdo bat asmatu zuen Donostiatik ez mugitzeko.

Telefonoa hartu zuen eta Xantiren zenbakia bilatu, baina berehala atzera egin eta mugikorra poltsaren barruan sartu zuen berriro ere.

Gero eta gauza gutxiago egiten zituzten elkarrekin Xantik eta berak. Aurreko egunean Mirenek arratsaldea Donostian pasa zuen berarekin, gizona Oriora hurbiltzeko oso arratsalde konplikatu zuelako. Ez luke inportako ere joan izan ez balitz, batzuetan egunak ematen zituzten elkar ikusi gabe. Baina egun hartan Mirenek esfortzu bat egin zuen, beste bat.

Alde zaharrean ardo batzuk hartzen zituzten bitartean Mirenek elkarrizketa haien erlazioari buruz hitz egitera bideratzen saiatu zen behin eta berriz, baina ez zen modurik egon. Elkarrizketa bera ere eskasa izan zen. Ondorengo sexua ere bai. Hirurogeita zortzi urte betetzeko zituen eta bere bizitza sexuala berpiztu zuen gizonak itzaltzen ari zuen berriro ere. Bestelako bizitza, ere bai.

Hamabi urte ziren Xantirekin bizitzera joan zenetik, barnean halako errebuelta eragin zion gizon harekin. Donostiako lanpostua hartu eta bi urte beranduago ezagutu zuen, indartsu

sentitzen zeneko momentu hartan, independente, egunero trenean joan eta etorri ibiltzen zenean pozik, gaztetako poz horrekin. Xanti ospitale berean lan egiten zuen gizon argal eta bizarduna zen, erizaintzako laguntzailea. “Ezer berezik eztun gizon atraktibo hoitako bat”, horrela esaten zien bromatan Mirenek lagunei.

Maitemindu egin zen Miren, edo hori pentsatu izan zuen orduan. Gauza horiek egiteko zaharregia izateagatik berriro ere kritikak entzun behar izan bazituen ere, Villabonako pisua alokatu eta Xantirekin bizitzera mugitu zen Donostiara. Zoriontsu izan ziren, hiriburuan leku kuttunak zituzten, asko ateratzen ziren. Sexua ere polita zen, apala, laztanez beterikoa.

Bere bizitza bestelakoa bihurtu zen. Lana Donostian, bikotea Donostian, udako pisua Orion, herrira gero eta gutxiago hurbiltzen zen, eta egiten zuenean gurasoak ziren denbora osoa hartzen ziotenak. Gero erretiratzea etorri zen, eta egoera guztiak zentzua galdu zuen erabat. Eguna luzea egiten zitzaion Donostian, lanarik gabe. Xanti gero eta gutxiagotan egoten zen etxean, lanpetuta edo, absente. Mirenek Oriora egiten zuen eskapu.

Amaren azken egunak Villabonan pasa zituen, eta aspaldi bizi ez zuen lasaitasuna sentitu zuen bertan, lasaitasun eder eta mingotsa aldi berean. Ama hil ondoren, Xantik onartu zuen Praixku haiekin bizitzera eramatea Donostiara. Baina bera desagertu egin zen. Eta Mirenek ez zuen gehiegi faltan bota. Jaioterrira egindako itzulera horrek zeozer mugitu zion barruan.

Atzo, sexu eskas eta inoiz baino geldoagoa amaitzean etzanda geratu zen Miren momentu batez, eta atzamarrekin bere gorputzeko zimurrak laztandu zituen, suabe, ondoko gizona jantzi eta egongelara alde egiten zuen bitartean. Zentzurik gabekoa iruditu zitzaion logela hura, zentzurik gabekoa Garmendihandia txikitako baserriko argazkia Moneten koadroaren ondoan, zentzurik gabekoa sukaldean entzuten zen irratiko ahots etengabea. Aitarekin afaltzeko garaiz iritsi zen etxera.

“Baño etzenun bertan lo in bihar?”

Komunetik oihuka eman zion ongietorria agureak. Alabak zapatak kentzen zituen bitartean aita hurbildu eta kopetan eman zion muxua, txikia zenetik egiten zuen bezala, eta Mirenek oilasko bularkiak prestatu zituen bientzat afarirako.

Auto-ilara mugitu zen azkenean, eta kotxeak berriro abiadura hartu zuen. Azkar iritsi nahi zuen Oriora, oraindik erosketa gutxi batzuk egin behar zituen eta. Musikaren bolumena igo zuen, "Edurne" abestia baitzen hurrengoa, bere maiteena.

Aitak zioen amak izena Nievesetik Edurnera aldatzeko erabakia Serraten abesti hura entzun zuenean hartu zuela, Amasako emakume bati buruzkoa delako abestia eta ez zelako batere logikoa Serratek bere izena euskaraz esatea eta berak ez. Egia esanda denok deitzen zuten Edurne aspaldidanik, baina ofizialki aldatzeak sekulako poza eman zion amari. Kanpora bazkaltzera joan zen familia egun hartan.

Bere kalera iristerakoan Mirenek kotxea aparkatu eta aitarentzako pastak zituen poltsa besoan zintzilik etxera hurbildu zen. Beroa leunagoa zen bertan Villabonan baino, airea goxoagoa. Gora begiratu eta Praixkuren pertsiana jaitsita ikusterakoan irribarre egin zuen, aita lasai patxadaz lotan imajinatuz. Azkenaldian luze egiten zuen lo Praixkuk, eta hala egitea ona zela eta berak ez zuela lehenago esnatuko esanda zion alabak. Aita lotan baldin bazegoen denbora gehiago izango zuen gauzak egiteko. Horregatik gauerako barazki batzuk eroatera joan zen lehenengo eta Pilar bizilagunaren tinbrea jo zuen gero, udaren laburpena egin eta badaezpada hurrengora arte agurtzeko.

Etxera igo zenean komuneko atea berriro ere irekita aurkitu zuen. Sakon arnastu zuen haserrea kontrolatzeko eta atea itxi zuen burua astinduz. Sukaldean sartu zen, erosketa poltsak mahai gainean utzi, eta pasten poltsa eskumuturretik atera behar zuenean nota bat ikusi zuen mahaiaren gainean.

"Mirentxu, Villabona nijo. Eztakit zeatikan. Bakit bidia, ez preokupatu. Atsalde arte, atta."

Bihotza azkartu zitzaion. Gogor eutsi zen mahaira, ez erortzeko, eta minutu eskas baten ondoren kotxeko giltzak hartu eta ziztu bizian jaitsi zen eskaileretatik, Amasa kafetegiko pasten poltsa oraindik ere besotik zintzilik.

Arratzainera iritsi naizenean Imanol parrila garbitzen aurkitu dut goiko partean. Ikusi nauenean gauzak lurrean utzi eta korrika etorri da ni besarkatzera. Ia ahaztuak nituen Imanolen besarkada estuak, gogor eusten zaituztenak. Harrituta esan dit ziur zirela ez nintzela agertuko, eta nik esan diot ezetz, berez ez naizela agertuko, haiek agurtzera soilik etorri naizela, momentutxo bat, gero alde egin behar dudala. Goiz zen, eta besteak iritsi arte Imanol eta Uxo terrenan bakarrik egongo zirela pentsatu dut, horregatik joan naiz, aukera izango nuelako haiekin bakarrik egoteko, besteak iritsi aurretik. Hori ez diot esan.

Eskolako lagunak dira denak, gaztetako lagunak. Baina hainbeste urte kanpoan ibili ondoren ez dakit zer hitz egin haiekin, ez dut nire bizitza kontatzeko gogorik, ez dakit zeri buruz galdetu behar diedan, ez dakit zer erantzun galdetzea nahi ez dudan horiek galdetzen dizkidatenean. Whatsapp taldeari zero kasu egiten diodala onartzea ere zaila egiten zait. Imanol eta Uxo dira faltan gehien botatzen ditudanak. Jon eta Alaitz ere bai, baina hori beste kontu bat da.

“Pasa, pasa, ez geatu hor.”

Imanolek besoarekin nire sorbalda inguratuz aldapa jaitsi dugu, ia saltoka ume txikiak bezala, barrezka. Ardiak korrika bizian atera dira beste aldera. Uxo agertu da etxetxoaren atzeko partetik gure ahotsak entzun dituenen. Hark ere gogor besarkatu nau bere beso argalekin, poz-pozik.

“Aurea, pasa, ez geatu hor.”

Mahaia prest zeukaten, luzea, mantel zuri bat gaineratik. Uxo urdaiazpikoa mozten ari zen, eta hor zeuden ere patata poltsak, oliba latak, pateak eta ogi barra bi.

“Gu aldatu gea, baño menua...”

Barre egin dugu. Zuhaitzen bestaldean ikusten den herriari begira geratu naiz eta segundo batez irrealia iruditu zait dena.

“Egitan etzeala bazkaltzen geatuko?”, Imanolek. Uxoak ez dit galdetu, berak badaki nire burua irakurtzen, berak beti asmatu izan du nik pentsatzen nuen guztia.

“Irati herri hontan beti aldi baterako dao.”

Irribarre egin diot Uxoari, eta mahai luzearen alboan zegoen bankuan eseri naiz. Bankua hankamotza zegoen, eta oreka mantendu behar izan dut ez erortzeko. Oreka mantendu behar izan dut han gelditzeko, han egoteko, bertakoa sentitzearen sentsazioak ez itotzeko.

“Nekatuta zaudela emateu.”

“Ez det gehiegi loin.”

Eta basurdearena kontatu diet, eta begiak zabalik entzun dute nire kontakizuna. Eta konturatu naiz ametsetan ez dudala soilik hildako basurdea ikusi, konturatu naiz Londreseko kanpoaldean Edortak eta biok ikusitako hildako oreina ere agertu zaidala ametsetan, eta aita espetxetik itzuli eta hurrengo egunean etxeko atarian aurkitu genuen hildako katua ere bai. Eta konturatu naiz lagunek ez dakitela Edorta nor den, eta terreno horretan egondako azken aldia Londresetik itzuli nintzenean izan zela, eta kuadrilla guztiaren galdera asko erantzun behar izan nituela egun hartan, Londresen nola, non, norekin, zertan, baina ez nuela Edortaren izena aipatu ere egin.

“Sagardo pixkat?”, Imanolek. “Bai, mesedez”, nik.

Hiruak mahai inguruan eseri gara. Nola nagoen jakin nahi izan dute, ze planak ditudan.

“Ondo nao.”

Benetan esan dut, benetan ondo nengoela sentitu dudalako. Baina ez dut azaltzen jakin ez dakidala non egon nahi dudan ondo, ez dakidala nire aldi bateko herri guztietatik zeinetan egon nahi dudan ondo.

Ez didate gehiago galdetu. Urdaiazpikoa jan dugu, oliba lata bat ireki, barre egin dugu. Bi sagardo hartu ditut azkenean baina ez diet utzi hirugarrena zerbitzatzen, besteak laster agertuko ziren eta.

“Baño eztittuzu ikusi nahi, o?”

“Bai.”

Egia berriz. Baina ez hola, ez gaur, ez denak batera, ez kuadrillan, kontzeptu horrek aztoratzen nau. Hori ez dut esan.

Zuhaitzen beste aldeko paisaiak harrapatu nau berriro ere, argi horrek. Londresetik itzuli nintzenean antzeko sentrazioa eduki nuen. Bertan zortzi urte eman ondoren hona iritsi eta argiak kolpatu ninduen, usainak, berdeak.

Londreseko usaina gorroto nuen, jatorri ezberdineko jatetxeen usainak kalean nahastu eta sortzen zen kirats hori, zakarrontzien inguruan biltzen zena kalean korrika eta presaka jaten zuten guztien zaborrekin, iluntasun amaigabe hartan. Zortzi urte eta ez nintzen usain horretara inoiz ohitu.

Lehenago itzultzeko aukera izan nuen, aukerak, pluralean, baina lana nuen bertan, aukera on bat ingelesa ikasteko, karrera profesionalean aurrera egiteko, hori esaten nion neure buruari. Hori esaten nien guztiei.

Edorta ezagutu nuenean urte bat neraman hiri hartan. Ingelesa ikastea zen nire lehenengo helburua eta klaseak ordaindu ahal izateko lan eta lan ibiltzen nintzen, topatzen nuen edozein lekutan.

Arratsalde batean, jatetxeko lan nazkagarri hartan hamabi ordu eman ondoren, ingeleseko apunteak beso azpian, metroa hartu nuen. Ikara izugarria ematen zidan metroan lo geratzeak, nekea ezin kontrolatu eta auskalo non esnatzeak. Jolasten nuen orduan, neure buruarekin, gaztetako joko hartan bezala, metroan zihoazenen jatorriak asmatzera, batzuei gure herrikoak ere emanez: gizon asiarra Ordiziakoa, bizkarrean umetxoa zeraman emakume beltzarana

Andoaingoa, musika ozen zeraman neska gaztea Tolosakoa, kamiseta beltza zeraman mutiko hura, Hernanikoa. Hura zen benetan hangoa zirudien bakarra, nire jokoan sartutako mamu hura. Ez nintzen urruti baina, Lasartekoa zen.

Herria ez nuen asmatu; guretzat gerora imajinatu nuen guztia, ezta ere. Edorta ez zen bere izena, ez benetakoa, bederen. Iheslari politikoa zen, baina hori ere ez nuen bukaera arte jakin. Beste gauza asko, inoiz ez. Euskaldunak izateak elkartu gintuen, hiri gris hartan gure herri txikiei buruz hitz egiteak, euskaraz mintzatzeko ingeles guztien artean.

Ingelesa ikasteko nire helburua ez zitzaidan hain garrantzitsua iruditzen jada, berarekin euskaraz egin ahal banuen. Klasetara joaten nintzen hala ere, gero eta gutxiago. Diruz larri nenbilen, eta hartu beharreko lan triste horiek guztiek denbora eskatzen zidaten, eta Edortarekin egoteak ere bai. Begirada berezia zuen. Ile horia, mugarik gabeko begi beltzak. Kitzikagarria zen dena berarekin.

Berak ere lana behar zuela eta elkarrekin hasi ginen hiriaren kanpoaldean zegoen ett moduko batera joaten. Pabiloi handi bat zen. Gure izenak apuntatzen zituzten hara iristerakoan eta banku batzuetan esertzen ginen gero, itxoitera. Lanak iristen ziren heinean hango guztien profilak begiratu eta lanerako aukeratzen zituztenen izenak ozenki esaten zituzten. Aipatutakoak altxatu eta furgoneta batean sartzen ziren, lanera bai, baina nora edo zertara jakin gabe.

Elkarrekin egoten ginen Edorta eta biok pabiloi hartan, zain, batzuetan egun osoa. Batzuetan gutako baten izena esan eta batek alde egiten zuen bestea bertan utziz. Gaua arte ez genekien geratu zenak lan egin ote zuen. Gauean kontaktzen genion elkarri, non egonak ginen, zein lanetan, zein egoeratan. Elkarrekin lo egiten genuen, elkarrekin larrua jo, elkarrekin barre.

Lan zeken asko hartu genituen biok, eta gure ordutegi ilegalek uzten zigutenean elkarrekin egoten ginen. Ez ginen elkarrekin bizi, ni beste hiru pertsonarekin pisu konpartitu batean bizi nintzen, bera hiriaren kanpoaldeko familia batek alokatzen zuen gela txiki batean. Baina trenea gora eta behera, gure herrian bezala, hantxe egiten genituen peripeziak elkar ikusteko.

Hiru urtez egon ginen horrela, elkarrekin oheratzen, elkar maitatzen, elkarrekin lan zikinak bilatzen. Nik ingeniari-tza karrera bukatua neukan aspaldian, eta lan txiki horiekin nazkatuta egon arren ez nintzen ausartzen nire bizitzarentzat espaloi bat gehiago eraikitzen. Ez nuen hazi nahi, ez nintzen Edortarengandik urrundu nahi. Ez nekiena zen bera zein urrun zegoen jada.

Nik neure buruarengan baino konfiantza handiagoa zeukan Edortak niregan, eta animatu ninduen injineru bezala lana bilatzera, eta konbentzitu ere.

Coventry-n kafek zuen egoitzan lana lortu nuen, egoera ekonomikoa hobetu zen, elkarrekin bizitzeko proposamena egin nion. Ez zuen onartu, baina. Horren orde-z, bizi zen etxeko sukaldeko aulki batean eseri ninduen, familia kanpoan zegoela aprobe-txatuz, eta egia kontatu zidan. Parte bat, bederen. Ihesean zebilen. Atxilotzeko agindua zuen bere gain. Alde egin behar zuen. Edorta ez zen bere izena.

Arrakala bortitza eragin zuen nire barre-nean. Gurasoek bizitako guztia lohi zaku bat bezala erori zitzaidan gainera, nik aitarekin izandako eztabaida guztiak, nire adin hartako ideia politiko nahastuak, nire topikoz beteriko ideologia, nire sentimenduak, gure bizitza, denak eztanda egin zuen. Ez nuen nahi eta nahi nuen, gorroto nuen eta maite, ez nuen Londres nahi bera gabe, ez nekien nor zen bera.

Lasaitasuna mantendu nahian kontatu zidan kontatu zidan gutxi hori, baina eskuek dar-dar egiten zioten. Miresmena sentitu nuen hari begira, eta ez nuen ulertzen zergatia, bere ahotsaren lasaitasun hargatik agian, arriskuaren gainetik niri egia kontatzeagatik, libre bizirauteagatik, aurretik saihestu izan nuen mundu hori aurrean izan eta ez ikustea lortzeagatik, inoiz ezin izan dut hori jakin. Ez nuen ezagutzen, eta ez nuen gehiago ezagutuko.

“Biño zergatik... nik ez det uste... nik eztakit... ni ez nao...”. Ez nuen ausardiarik topatu deus zentzudunik esateko.

Larrua jo genuen gau osoan. Etengabe errepikatu nuen ozenki bere izena larru jotze hartan, oihuka, bere izena ez zen izen hori. Hurrengo egunean desagertu egin zen.

“Gure herrin ikusiko gea.”

Azken mezua.

Bi hilabete beranduago itzultzeko aukera izan nuen, Beasaingo kafeko postu bat hartzeko aukera eskaini baitzidaten. Baina Londresen geratu nintzen. Lanarekin pozik nengoen, aukera on bat ingelesa hobetzeko, karrera profesionalean aurrera egiteko, hori esaten nion neure buruari. Hori esaten nien guztiei. Ez nintzen itzultzera ausartzen. Hori ez nion inori esan. Edorta Londresera itzuli eta ni aurkituko ez ote ninduen beldur, Euskal Herrian topatuko ote nuen beldur. Nola, non, argazkia zein egunkaritan. Londresen geratzea izan zen erabakia, beste lau urtez luzatu zena.

Benetako lagunei gauzak kontatzeak lasaitzen gaituela pentsatu izan dut askotan, baina ez zen momentua. Imanolek parrila prestatzen bukatu behar zuen, Uxoak urdaiazpiko asko zuen oraindik mozteko, eta lagunak etortzekoak ziren. Imanolek tontakeriak egin ditu, beti bezala, barre egin dugu hirurok. Besarkada estu bi eraman ditut, benetako lagunena.

Laster itzuliko ote naizen,

baietz nik.

“Ta hemen geatzeko noiz?”,

ardiak korrika atera dira maldan gora alde egin dudanean.

Txermin auzotik jaitsi naiz herrira, gure pisua dagoen tokira. Amak eta biok bertara mugitu ginen aita espetxean zegoenean, eta, amak, Donostiara joan zenetik, alokatua dauka. Kale berritik nire gela izanaren leihoa ikusten da, eta aurretik pasa nahi izan dut, ikusteko ea zein gortinak dituzten jarriak edo loreontzirik ote dagoen. Etxe itsusia da, bistak ere bai. Baina erreka ondoko etxetxo horia dauka parean, Villabonako kartel zaharra fatxadan daukan etxe borobildua, ipuin batekoa ematen duena. Argazki bat atera diot, afaltzerakoan aitonari erakusteko.

2. ATALA

Migelek alde egin ondoren tartetxo batez egon zen Praixku oraindik Zentroa tabernako terrazan eserita. Argazkiak zituen karpeta berarentzat gordetzeko hainbeste tematu zen laguna, onartu egin ziola azkenean, eta bertan geratu zen ur basoa eta karpeta itxia mahai gainean.

Elizako kanpaiek jo zutenean, horretarako momentua zenaren uste osoarekin, altxatu, bastoiaren laguntzarekin errepidea gurutzatu eta kalearen beste aldeko koxkan eseri zen, beste ezinbesteko eginbehar bat, orain arte egondako lekutik metro gutxi batzuetara.

Perspektiba desberdina zuen handik, ordea, eta alde batera eta bestera egon zen begira, lehenago Joxek egin bezala. Pasatzen ziren guztiak agurtzen zituen, gehienak nortzuk ziren jakin gabe, eta gehienek ere ez zuten bera ezagutu. Anjelek bai. Ezagutu eta bere ondoan eseri zen.

“Atzo Malkorttikikuak ikusi nizkin.”

“Malkorttikikuak? Hombre!”

“Inaxiz hizketan attu giñuan.”

“Zertaz?”

“Inaxiz.”

“Inaxi? Zeakua... Malkorttikikua?”

“Malkorttikikua, bai.”

“Bai...”

“Harea ezkondu zan, Erausietandikua huan, harea ezkonduba. Ta geo familiya... Ondo jarrita zitxauken beaiek etxia, oso ondo, etxia ere berriya in ziyen etxian onduan ta... Ezautu huan hik Inaxi?”

“Jesus! Mutil koxkorra izatetik.”

“Emakume ona aparta huan. Hoi apaizakin eon huan neskame. Geo familiya ona izan zin harek eh, hiru o lau o bost zizkiyen eh!”

“Familiya dexentia, bai.”

Elkarrizketa amaitutzat emanda Anjel altxatu eta bazkaltzera joan behar zuela esanez alde egin zuen. Ez zuten elkar agurtu, aurreko egunean elkar ikusi izan balute bezala eta hurrengoan ziur elkar ikusiko balute bezala, egunerokotasunak gauzei ematen dien garrantzi ezarekin. Praixkuk pauso txiki azkarrekin urruntzen ikusi zuen laguna eta berak ere ibiltzeko erabakia hartu zuen.

Zalantzatan egon zen hasieran, nora joan. Presarik ez zeukan eta azkenean kale nagusira zuzendu zen, bastoia esku batean, argazkien karpeta bestean. Halako pausa txiki bat egin zuen kalean sartu aurretik, arnasa sakon hartzeko. Patxadaz ekin zion gero, ingurukoa arretaz aztertuz.

Etxe berrietako garajeko atea ixten ari zen, dendak itxita, ferreteriaren kartel zahartua, ibiltzeko arropa erosoak jantzita bikote bat, aio aio, kirola egitera zihoan gazte bat, ur botila eskuan, gaztetxea seinalatzen zuten geziak paretetan. Kaleak fresko usaintzen zuen, itzaletan zegoen erabat, eta Praixkuk begiak ixten zituen noizean behin, pausa txikitxoak eginez. Kultur Etxeko paretan zegoen antzina astoak lotzeko burdinazko eraztuna eskuan hartu eta astindu egin zuen pixka batean, txikitan hainbestetan entzundako soinu hura eragiteko. Begiradarekin kaleko beste paretetan lehenago egondako beste eraztunak bilatu zituen.

“Lastima.”

Patinete elektriko batek aztoratu zuen bere aldamenetik pasatzean eta gizonak pausoak pixka bat azkartu zituen. Kaleko alde horretako tabernak itxita zeuden, eta isiltasuna zen nagusi. Baina pixkanaka hasieran apal entzuten ziren ahotsak ozendu ziren, lasaitasuna erabat urratu arte. Gizonak irribarre handi bat egin zuen, Errebote plazara iritsia zen.

Tartetxo batez banku batean esertzea erabaki zuen Praixkuk. Ondoan gertatzen zen guztia aztertzeak nekatu egiten zuen, baina ezin zuen saihestu, ez zuen nahi. Sorbaldak jaitsi, lasaitu, eta hasperena egin zuen.

Iratik hamabi bat urte zituenean, igande batean, aitona aitona pasteleria zaharrera eraman zuen. Nahi zuena aukeratzeko eta berak garizko bi makilatxo zituen poltsa txiki bat eskatu zuen. Aitona beste gauzaren bat aukeratzeko esan zion, hori oso eskasa zela, baina Iratik ezetz, hori nahi zuela berak. Beti burugogor.

Plazako banku batean eseri ziren gero, aitona eta biloba, gauza hura jatera. Haien inguruan jende mordoa, haurrak, helduak, zaharrak, iskanbila, pilota jolas txikiak, bizikletak. Baina Irati eta aitona bata bestearekin besterik ez zeuden, inguruko guztiari jaramonik egin gabe.

Goiz hartan aitona eta amona haserretu omen ziren haien artean, askotan gertatzen zitzaizkien bezala, eta etxean amona eta ama utzita aitona bilobarekin ateratzea erabaki zuen. Bide batez elkarrekin egoteko, bere neskato kuttunarekin. Biloba gehiago zituen, hiru, denak mutilak, baina Irati zen bere kuttuna, bere maiteena. Ez zion inoiz esan, Iratik bazekien.

Egun hartan aitona herriko plazan gertatutako kontu asko eta asko kontatu zizkion, eta Iratik adi entzun zituen horiek guztiak. Aitona gizon isila zen normalean, horretaz kezkatzen ziren beti etxean eta hori zen Iratik ere ikusten zuena. Baina igande hartan, arrazoi logikorik gabe, aitona inoiz baino hitz gehiago zuzendu zizkion.

Erreboteko kontuak,

“lehen eztaizuzu zenbat jokatzeko zian, anjelusa errebatzeko gelditze zian, bazeon bat mankua, Villabonako mankua, istripuk eon dia pelotakin, batek begiya galdu zun!”

festak,

“ezteu ba dantzatu hemen, errokillerruak etortze zian, idi apustuk itte zian, inguruko festa onenak zian.”

bertsoak,

“bertso saio batian lau mila laun elkartu zian, pentsa, askotan eote zian bertso sayuak, hor eote zan kioskuan.”

Iratik, aitonaren jarrera hura aprobetxatuz, galdera asko egin zizkion eta aitonak denak erantzun, harro zekien guztiarekin, harro bilobari hori guztia kontatzeko gai izateagatik.

Udaletxen mataderua zeon, ta hor itten zuen, hor bertan hil, ta espektakulu bat zan eh! Zikin guztik ibaira, odola, kakak eta dana.

Iratik begiak handi-handi ireki zituen eta aitonak barre egin zuen. Gero gaiaz aldatuz festetara itzuli zen, eta amonarekin dantzatutakoak kontatu zizkion, kilimak nola egiten zizkion gerri partean eta munduko barrerik ederrena zeukala amonak.

“Dauka.”

“Haserre daonen ez.”

Irati zuzen begira geratu zitzaion, serio. Aitonak eskua eman zion eta keinu batez etxera itzuli behar zutela adierazi zion. Eta hara joan ziren biak, motel, elkarrekin inoiz baino gehiago hitz egindako une hura pauso azkarregiek ezabatu ez zezaten.

Orain ere jende mordo zegoen plazan haren inguruan, baina Praixkuk bakarrik ikusi zuen bere burua. Altxatu eta martxan jarri zen berriro ere.

Bildutako errebote sarearen azpitik pasa zen, tabernan zeudenak agurtu eta Karkaroa hartu zuen, Itzalpe jatetxera bidean. Bazkaltzeko ordua zen jada eta ez zitzaion leku hobeagorik bururatu. Beti leku berdinetara joateko ohitura zuen Praixkuk. Ez zen egun hartan hori aldatzen hasiko.

Miraria izan da eskaileretatik ez erortzea. Kotxean sartzera nindoala egongelako leihoak oraindik irekita zeudela gogoratu dut, eta arratsaldean enbata egonen zela, eta korrika igo naiz berriro haiek ixtera. Ezin nuen sinetsi. Nola zen posible aita bera bakarrik Villabonara joatea, ezin nuen buruan sartu. "Bakit bidia". Banekien bazekiela, baina ez zen bide bat berak bakarrik egiteko modukoa, edozein gauza gerta zekioken.

Leihoak itxi eta korrika jaitsi naiz berriro. Kotxean sartu, eta oraindik besotik zintzilik neuzkan pastak kopilotuaren eserlekuan jarri ditut. Pasta madarikatuak, eroatera joan ez banintz aita etxean egonen zen, lasai. Kotxea piztu eta egiten ari nintzena benetan pentsatu gabe Villabonarantz abiatu naiz.

Izerditan nengoen, beroa izugarria zen. Telefonoa hartu dut eta Iratiren zenbakia markatu dut, baina ez du erantzun. Ez dakit zergatik deitu diodan, Irati Donostian zegoen, beti bezain lanpetuta, beti bezain independente. Baina aztoratuta nengoen, ezin nuen ondo pentsatu. Arnasten saiatu naiz, hori esaten du Iratik egin behar dudala, airea sakon hartu eta motel bota behar dudala, hiru zenbatuz.

Musika piztu da bat-batean, kotxe zahar ero honetan. Lehen geratu den tokitik hasi da musika, Edurne, amaren abestia. "Abestu Edurde, abestu Edurne. Hori da zure herrie". Ez dut itzali nahi izan. Pentsamendu positiboak izaten lagunduko zidala pentsatu dut, aita ondo zegoela, ziur, gizon indartsua dela, eta zaharra izanagatik ere burua ondo duela, jakingo duela bere burua zaintzen. Baina ezin nuen ulertu, zergatik gaur, bere urtebetetze egunean, zergatik horrela, abisatu gabe, galdetu gabe. Nik pozik eramango nuke Villabonara egun pasa, nahi izanez gero. Baina inoiz ez dit hori eskatu. Inoiz ez.

Ama hil zenean aitak bi hitz besterik ez zituen esan. "Agur, Edurne". Besterik ez.

Aurreko asteetan herrira itzuli nintzen Oriamendiko haien pisura aitarekin egotera. Ama ospitalean zegoen eta ezin nuen jasan aita etxean bakarrik imajinatzea. Nik ezin nuen jasan.

Berak ordea, bai. Bera zaintzeagatik haien etxera mugitu nintzen, hura bakarrik ez egoteko. Agian okertu nintzen, agian hori zen berak benetan behar zuena.

Aitaren hitz egite eskasa nabarmenagoa egin zen egun haietan. Kostata ateratzen nion esaldiren bat eta isiltasuna nagusitu zen beti alaia izan zen haurtzaroko etxe hartan.

Irati etorri zen arratsalde batean, abisatu gabe, eta pastelak ekarri zizkion aitonari. Honek, nirekin egiten duen bezala, bilobari kopetan muxu eman zion, telebistaren aurrean eseri, eta ez zigun hitz bakar bat ere zuzendu arratsalde osoan.

“Normala da, ama.”

Iratik aitonarekin beti izan duen enpatia nik ez dut inoiz izan. Saiatu naiz, baina ez dut lortu. Ezin dut jakin zer pentsatzen duen, zer sentitzen duen, zer duen begi urdin horien atzean. Iratik begi berdinak ditu, agian horregatik uler dezake nik baino hobe. Aitonaren ondoan eseri zen, eskua hartu zion, eta munduko pazientzia osoarekin hor egon zen ia ordubetez, isilik, nik aitaren hitz bakar bat entzuteagatik galdera bat bestearen atzean egiten nizkion bitartean, erantzunik gabekoak guztiak.

“Ama, utzi.”

Hura izan zen Irati, aita eta hiruok elkarrekin eta bakarrik egon ginen azken aldia. Eta gaur Iratik ez zuen gurekin bazkaltzera etorri nahi.

“Barkatu, gaurko erreserba kantzelatatu in nahiko nuke. Bai, bakit beandu dala baño...bai, sentitzet. Eskerrik asko, bai, aio.”

Amaren errautsak Orion bota genituen, berak nahi zuen bezala. Orion jaiotako emakume indartsua zen, gaztetan antxoak saltzera asto baten laguntzaz eta Aia zeharkatuz Villabonaraingo joaten zena. Bide luzea, nik ez nuen inoiz jakin hori egia ote zen. Gezurtia zen ama, ahal zituen guztiak asmatzen zituen. Baina egia da aita arraina saltzen ezagutu zuela, hori biek zioten, eta aitak ez du gezurrik esaten, inoiz ez.

Seme-alabak eta biloba guztiak elkartu ginen amaren errautsak itsasora botatzeko. Haizeak ez zigun lanean batere lagundu baina azkenean Irati arroken artean sartu eta berak hartu zuen errautsak uretara botatzeko ardura, hasieran horrela pentsatua ez bageneukan ere. Momentu hartan esan zituen bere bi hitz horiek aitak, egun osoan esan zituen bakarrak: “Agur, Edurne”.

Hango jatetxe batean bazkaldu genuen. Aitak oka egin zuen. Momentu hartatik aurrera ezin izan du arraina jan, gaizki egiten dio.

“Abestu Edurne, abestu Edurne. Deitu dizu maitasunek”.

Villabonako Kale Berria goraino kotxez egitea erabaki dut, gainbegiratu bat egiteko lehenengo, ea paseatzen ikusten dudan, edo koxkan eserita, edo Zentroko terrazan, edo eliz aurrean, edo Oriamendiko plazan... Deus ez. Oriamendi aurrean semaforoa gorri jarri eta hor egon naiz geldirik tarte batez. Eternitatea iruditu zait, oinezko bakar bat ere ez da pasa semaforoak iraun duen denbora guztian. Ni geldirik, baina musikak bere bidea jarraitu du, “Abestu Edurne, abestu Edurne. Lurperatu ote dute...”

Mugitu naiz azkenean. Bat-batean beste herri batean nengoela iruditu zait. Ez dut gogoratzen noiz pasa nintzen azken aldiz gurasoen etxeko mugatik haratago, baina hurrengo auzo hori guztia ezezaguna egin zait. Bloke erraldoi horiek guztiak, haurrentzako parkea, jendez betetako terrazak. Herrian egiten nuen bizitza oso zonalde txikira mugatua zegoen, beti leku berdinetan, beti ertz berdinekin. Zertarako atera, zertarako haratago joan. Donostian distantzia handiagoak egiten ditut edozein egunetan, baina herrian kale berriaren bukaeraraino iristea sekulako ibilbide luzea iruditu izan zait beti. Gurasoen etxetik urrutiegi. Absurdoa, orain aita Orion utzi eta askoz gehiago urruntzen naiz. Baina herrian ez, herrian ezin, hainbeste urtetan nire espazioa horren inguruan sortu eta ez dago hortik ateratzerik. Terraza horietako batean eseri nahi dudala erabaki dut. Paseatu nahi dudala herrian. Ibili, mugetatik haratago joan. Gehiago bizi nahi dudala. Ez dudala aita gehiago zaindu nahi, pentsatu dut. Ez dudala gehiago Donostiara joan nahi Xantirekin ardo bat hartu eta oheratu eta alde egiteko eta aitarekin afaltzeko presaka itzuli eta Iratiri behin eta berriro deitu eta herriko lagunak faltan bota.

Irati deitu dut berriro. Berriro ere ez dit hartu. Telefonoa bota egin dut behar baino indar handiagoarekin eta eserlekuan doazen pasten gainean erori da, kutxa zertxobait apurtuz. Zer axola zuen, ez genuen urtebetetzerik ospatuko.

Damutu naiz aita gehiago zaindu nahi ez dudala pentsatzeaz. Urduritu egin naiz. Aita aurkitu nahi nuen.

Herri bukaerako errotondan buelta eman eta kale guztia egin dut berriro beherantz, baina ez dut aita ikusi. Eliza ondoan aparkatu dut. “Abestu Edurne, abestu Edurne. Zuk dezu bihotz haundie”.

Presaka iritsi naiz Zentro tabernara. Aitari taberna hau gustatu izan zaio beti, orduak ematen zituen lehen hemen. Nik ez dut inoiz gustuko izan, herriaren bidegurutze honetan bizilagun guztien begi-bistan sentitzen naiz. Terraza aztertu dut, barrualdea ere bai. Familiak eta talde handiak bazkaltzeko prestatzen ari ziren eta iruditu zait denek begiratu nautela, denek ezagutu nautela. Ez diet arreta jarri, badaezpada. Ez zen inorekin gelditzeko momentua.

Koxkan begiratu dut gero, baina aita ez zen beste gizon bat zegoen bertan.

Errekako pasealekura joan naiz, goizean Izaskunekin egon naizen leku berdinerara, handik ikuspuntu zabala izateagatik edo beste ezer bururatu ez zaidalako. Bidean Iratiren kuadrillako Amagoia eta Beatriz aurkitu ditut.

“Mirentxu, aspaldiko!”

“Zemuz? Dena ondo?”

“Ta Irati nun dabil?”

“Oain bazkaiya deu Arratzaiñen baño bea eztala etorriko esan du.”

“Eskumiñak eman.”

“Aio, aio.”

Jatorrak dira, eta diskretuak. Ez didate galdetu zergatik egon naizen hain isilik, zergatik nengoen han, zergatik egiten nuen izerdi modu horretan. Egia esanda ez dakit zergatik ez diedan egia kontatu, laguntza eskatu. Aztoratuta nengoen eta ez zait iruditu besteak ere aztoratzea ideia ona zenik.

Kotxera itzuli naiz, martxan jarri eta Amasan gora igotzea erabaki dut, aitaren jaioterrira. Urteak ziren ez nintzela igotzen gure herria izan zen hartara, txikitako herrira. Ez dut inoiz beharrik izan. Aitzakiaren kontua, berriro ere.

“Abestu Edurne, abestu Edurne. Euskal Herria zurekin dezu abesten”.

Arnasa aztoratu zait abestiaren azken parte horrekin, ia eten. Dardarka nengoen, eta aldapa igotzen hastean eskuinean dagoen bidegurutze txiki batean gelditu dut kotxea. Leihoak ireki ditut, Iratik esan bezala airea hartu eta airea bota dut. Airea hartu eta airea bota, hiru zenbatuz. Baina ez dakit ondo egiten, ez dut ondo egiten. Eta negar egin dut. Eta konturatu naiz urteak zirela ere negar egiten ez nuela.

Abestiaren azken parte hori guztientzat gustukoena zen. Kotxean Oriora bidean ozenki kantatzen genuen guztiok, amak, aitak, Iratik eta laurok. Ozenki, ia oihuka, leihoak jaitsi eta mundu guztiak entzuteko moduan. “Abestu Edurne, abestu Edurne. Euskal Herria zurekin dezu abesten”.

Iratiri deitzen saiatu naiz berriro ere pixka bat lasaitu naizenean. Azken aldiz sakon arnastu, kotxea martxan jarri, eta Amasara igo naiz.

Eguzkiak gogor jotzen zuen Iratik Txermin auzoa utzi zuenean. Erreka tabernara joatea erabaki zuen, hainbestetan egondako taberna hura, eta desengainua hartu zuen itxita aurkitu zuenean.

Zalantzatan egon zen, zer egin edo nora joan. Trenaren txistua entzun eta erreka bestaldera begiratu zuen, geltokia zegoen aldera. Agian Donostiara itzultzeko ordua zen.

Mugikorra begiratu zuen eta amaren deiak ikusi zituen. Aste osoa zeraman amak egun hartan bazkaltzera joateko konbentzitu nahian. Baina Iratik esana zion jada ezin zuela, gauza asko zituela etxean egiteko, garbitzeko, aste osoan denborarik ez eta igandean egin behar zituela guztiak. Esan zion ere jatetxe batera joatearenak ez zuela zentzu gehiegirik, aitonak gero eta gutxiago jaten zuela eta dirua botatzea izango zela. Baina amak baietz eta deika ibili zen aste osoan zehar hura konbentzitzeko argumentu desberdinekin.

“Eoskorra zea geo.”

Iratik aitonarekin hitz egin zuen jada aurreko egunean telefonoz. Amak behin eta berriro sorpresa bat izango zela errepikatuta ez zion aipatu bazkariarena, soilik bere urtebetetzea gogoratzen zuela esan zion, lanpetuta egongo zela baina gauean haiekin afaltzera joango zela Oriora. Eta aitona ados eta pozik agertu zen ideia horrekin.

“Ez det gehio bihar.”

Iratik telefonoa poltsikoan gorde eta erreka ondoko paseotik ibiltzen hasi zen. Orduan ikusi zuen Alaitz, hor, bere aurrean, hari begira. Gaztetako lagunak sorpresa hartu zuen Irati herrian ikustean eta nola erreakzionatu jakin gabe hari begira zegoen, geldi-geldi.

Hurbildu ziren biak, motel, zer egin ez zekitela. Alaitz izan zen azkenean pausoa eman eta Irati besarkatu zuena.

“Pintxo bat hartuko deu?”

Denbora hartu zuen Iratik erantzuteko, laguna begietara begiratu zuen arte.

“Bai, gosia daukat.”

Eta handik gertu zegoen Iru Aldeta tabernara joan ziren bi neskak.

Itzalpe jatetxeko barrualdean eserita zegoen Praixku, egurrezko mahai irmo batean, bakarrik. Amaitutako dilista platera ogiarekin garbitu eta sagardoari trago txikitxo bat eman zion.

“Bigarreneako daukazu...” eta sei plater esan zizkion zerbitzariak irribarretsu. Sei plater eta gero “nahi dezuna”, esan zuen, beste edozein gauza eskatu ahal izango balu bezala.

“Legatza.”

“Rebozatua eo plantxan?”

“Plantxan.”

Koilara plater barruan utzi eta zerbitzariari lagundu zion platera emanaz. Sardexka eta labana ondo kokatu zituen, edalontzia eta botila ere bai, Migelek emandako karpeta zertxobait mugitu, gauza bakoitzaren kokapen zehatza bilatuz. Itxoiten geratu zen gero, eskuak bata bestearekin lotuta, urduri xamar.

Legatza ekarri zion zerbitzariak, patata frijitu eta piperrekin. Platerari begira geratu zen Praixku. Edurne hil zen egunetik ez zuen arrainik jan, gaizki egiten zion. Une batez pentsatu ondoren sardexka eta labana hartu zituen. Zatitxo bat moztu, ahoan sartu, ondo murtxikatu, motel irentsi eta itxoiten geratu zen. Sagardo tragotxo bat hartu zuen gero, laguntzeko. Dena ondo. Hurrengo zatitxoa moztu, ahoan sartu, murtxikatu eta irentsi egin zuen. Oraingoan ere, ondo. Irribarre egin zuen Praixkuk, eta erritmoa pixka bat azkartuz, legatz guztia jan zuen, eta disfrutatu, ere bai. Bukatzerakoan, topa, Edurne, xuxurlatu, eta azken sagardo tragotxoa hartu zuen.

Unai lehengusuaren heriotza ez zen ustekabeen gertatu. Edozein momentutan gerta zitekeen zerbait zela bagenekien, familiakoek bederen. Gaztetan drogen mendean emandako urte horiek sendaezineko ondorioak eragin zizkieten. Familiartean gainera, azkeneko urteetan kontsumitzera itzulia zenaren susmoa bageneukan, berak onartzen ez bazuen ere. Sendatu, itxura ederra berreskuratu, eta bi urtetara goibeldu egin zen berriz, zimurtu, argaldu, desagertu. Alaitzek eta biok hogeita zazpi urte genituen momentu hartan, eta prozesu guztiak asko markatu zituen gure bizitzak. Batez ere, Alaitzena.

Txikitatik ezagutzen zuen Alaitzek. Lagunik hurbilenak izan eta familiekin ere oso erlazio estua eratu genuen, nik berearekin, berak nirearekin. Batez ere nire lehengusuekin. Unai gu baino zortzi urte helduagoa zen baina gertu egon izan zen beti, nire urtebetetze festa guztietara etortzen zen, eta egun pasak egiten genituen elkarrekin askotan. Lagunak ginen, miresten nuen.

Alaitz eta biok banaezinak ginen, eskolan beti elkarrekin, institutuan, kalean, etxean, beti. Dena kontatzen genion elkarri, dena ulertzen genion elkarri. Hamabost urterekin Jonekin ateratzen hasi nintzenean hor egon zen, kontatu nahi nizkion guztiak entzuten. Esan daiteke lagunak eta biok elkarrekin bizitako esperientzia izan zela hori ere, hasieran gutxienez.

Hiru urtez egon ginen Jon eta biok elkarrekin. Hasieran gehienetan kuadrillarekin egoten ginen, hor suertatutako eta hor garatutako erlazio bat zen, lagunaren babesarekin bilatzen genion elkarrekin egoteari zentzua. Pixkanaka maizago bilatzen genituen bakarrik egoteko tarteak, eta erlazioak intimitatean ematen zizkigun onurak ezagutu genituen. Urte zoriontsuak izan ziren, bikotea eta lagunak, barreak, jende onaren konpainia.

Alaitzi Jonek eta biok intimitatean egiten genuen guztia kontatzen nion, berak galdetuta gehienetan. Kuriositatea zuen, bietatik lehena izan nintzen, berak jakin nahi zuen. Nik pozik kontatzen nizkion, beharrezkoa nuen, ozenki esan, izerditan eta trakets egindako guztia benetan gertatua zela sinisteko. Batzuetan orduak ematen genituen hizketan, Otsabi pasatako fabrika zeuden hormigoizko hodiedetako batean ezkutaturik.

Jon eta bion arteko erlazioa aurrera zihoan eta pixkanaka gero eta gutxiago egoten ginen lagunekin, gero eta gehiago gure kabuz. Ondo pasatzen genuen, maite genuen elkar, asko. Gazteak ginen, planak genituen, ilusioak. Nik batez ere. Bihotza apurtu nion horietan bera ikusten ez nuela aitortu nion egunean.

Gauza arrunta iruditzen zait orain adin horretaz pentsatzen dudanean, baina momentu hartan imajina genezakeen gauzarik gogorrena izan zen. Lagunekin ez ginen elkartzen, edo bereizita elkartzen ginen, haiek aztoratuz. Jonek berriro saiatzea eskatu zidan behin eta berriro, negar egin genuen asko elkarrekin. Baina nik ez nion aukerarik eman, nire egoskortasunean firme. Ez dakit nondik atera dudan ezeren gainetik ideiaz ez aldatzeko tematze hau. Aitonarena da, edo amarena. Atzera egiterik onartzen ez didan egoskortasuna, maitasunaren gainetik ere jokatzeko duena, batzuetan.

Ez nion inoiz galdetu nire buruari Jon maite ote nuen, ez nien lekurik utzi nire sentimenduei. Ez nuen onartuko atzera egite bat. Erabakia hartuta zegoen eta horretan mantentzen nintzen, firme. Arrasateko unibertsitatean hasia nintzen jada, esperientzia berriak biziko nituen eta hor nonbaiten topatuko nuen benetako maitasuna, aurrean neukanak balioko ez balu bezala.

Jonek biziraun zuen, ordea, eta ondo gainera. Karrera Donostian hasi eta handitu egin zen, azkartu, hazi. Guapoago bihurtu zen, alaiago, bere buruan seguruago. Taldean nolabaiteko lider rola hartzen joan zen, edo eman genion, modu naturalean. Lider onarena, besteek pozik eta konbentzimenduz jarraitzen zutena. Villabonara itzultzen nintzen guztietan elkar ikusten genuen, asko maite genuen elkar. Bera izan zen Unairen kontuarekin gehien lagundu ninduen, Alaitzen faltan.

Jonekin egondako azken urtean Alaitz gutxi ikusi nuen. Unibertsitatean hasi, eta asteburuak labur geratzen zitzaizkidan mutil-laguna, bera, beste lagunak eta familia artean banatzeko. Telefonoz hitz egitera mugatu zen gure adiskidetasuna, hasieran gehiago, gero gutxiago, bakoitzak gure unibertsitateko kontuak kontatzeko. Horietako dei batean kontatu zidan Unairena.

Unibertsitateko lan batzuetan erabat murgilduta denboraldi batez ez nintzen Villabonara itzuli asteburuetan. Horietako batean oheratu omen ziren Alaitz eta Unai lehengusua, Uztargi tabernan parrandan elkartu ondoren. Ez zitzaidan harritu, Unai guapoa zen, alaia, beti izan zituen neskak haren atzetik. Lotsa, aipatu zuen Alaitzek, jendeak ikusi zituelako, baina gustura egon zela, gero, bere etxean. Barre egin nuen. Gure arteko konfiantza-oasi bat zen azkenaldiko desertuan.

“Besteik gabe”, esan zidan, “zuk jakitia nahi nun.”

Berak ere ez zekien orduan “besterik gabe” horren atzean beste zenbat ezkututzen zen.

Elkarrekin egon omen ziren hilabete batzuk, holako gauza garrantzirik gabekoa, berak esaten zuenez. Beti festa giroan, beti festa bukatzean, beti ezkutuan. Alaitzi lotsa ematen zion inork jakiteak, Unai helduagoa izateagatik, familiek elkar ezagutzeagatik, eta ni nintzen kuadrillan horren berri zuen bakarra.

Berari esker jakin nuen lehengusua drogetan sartzen hasia zela, eta berak eman zidan lehengusuaren kontrola galtzearen berri. Hasieran garrantzirik ez zion eman Alaitzek, zerbait sartu zuela bai, baina ez zuen hain larri ikusten. Gauak elkarrekin pasatzen zituzten, sexuaz gozatu, eta bakoitza bere etxera joaten zen. Alaitz behintzat bai.

Gau batean, goizeko hirurak aldera etxera zihoala, Unai ikusi zuen bere atari ondoko kontenedoreen atzean eserita. Hurbildu zitzaion alai, haren zain egongo zelakoan eta gauari amaiera on bat emango ziotenaren ustean. Unai ez zuen ezagutu ere egin. Begiak gorriturik dardarka zegoen, ezin zuen hitzik egin, erabat joanda. Xiringa zeukan hanken gainean, goma lurrean.

Alaitz izutu egin zen, ez zekien zer egin. Altxatzen lagundu nahi zuen baina ez zuen lortzen, haren hankak ez ziren tente egoteko gai. Beldurtuta ihes egin edo han geratu zer egin ez zekiela, emergentzietara deitzea erabaki zuen. Deitu, partea eman, eta anbulantzian eraman zuten arte han egon zen, shock egoeran, dardarka. Niri kontatu zidan, inori gehiago ez. Anbulantziakoei sekretuan maite zuen mutil hori ezagutzen ez zuela esan omen zien.

Urteak joan dira gau hartatik. Unai drogetan hasi berria zuen bideak jarraitu zuen, eta Alaitz ez zen berarekin gehiago elkartu. Saihestu egiten zuen nonbaiten topo egiten bazuten elkar. Familian asko inplikatu ginen lehengusuarekin, ahal genuen moduan laguntzen saiatu ginen, adi ginen. Alaitzek ezin zion horri guztiari aurre egin. Egoerak ematen zion minak nire familiarekin erlazioak apurtzera eraman zuen. Nirekin ere bai. Telefonoz aspaldian esandako “besterik gabe” horren atzean zegoenaz kontziente egin zen, eta ez zuen jasan.

Hurrengo urteetan ni kanpoan izan nintzen, lehenengo Gasteizen eta gero Londresen. Laguna faltan eta noizean behin deitu egiten nuen, baina hitz batzuk besterik ez genituen partekatzen. Nik bere mina ulertzen nuen eta behar zuen espazioa eman nahi nion, eta aldi berean nolabait lehengusua bakarrik uztea leporatzen niola uste dut, leporatze hori injustua iruditzen bazitzaidan ere, kontraesanak aztoraturik. Ez genion honi buruz elkarri deus esan. Gure adiskidetasuna hoztu egin zen, ia erabat izoztu arte.

Nik kanpoan emandako urte horietan gauzak aurrera zihoazen herrian, eta nik horietatik gutzietatik kanpo egotea onartua neukan jada. Kontaktuak eskasak, bisitak eskasagoak, gauza gutxiren parte nintzen. Unai hobeto zihoan, sendatzen ari zen. Lagunak hazten, gero eta gutxiago ematen ziren bazkarietan elkartzen.

Alaitz eta Jon elkarrekin ateratzen hasi ziren urtetara, maitemindu egin ziren, heldutasunak ematen duen maitatzeko beste era horrekin. Alaitzek deitu zidan kontatzeko, nik jada beste batzuegandik jakinda nuenean, zor zidala, Jon berezia zela niretzat eta kontatu nahi zidala, besterik gabe. Besterik gabe, berriro ere.

“Pozten naiz.”

Ez nekien egia zen ala ez, orain badakit baietz. Momentu hartan gutxi inporta zitzaidan. Londreseko bizitzan erabat murgildurik, lagunaren arteko elkartzeko eta banatze horiek berri urrunak ziren niretzat. Hala ere, ideia polita iruditu zitzaidan. Alaitzekin neuzkan kontradikzioek ez zuten ezabatzen urte askotan zehar erakutsi zidan pertsona ona zelaren ustea. Jon pertsona

zoragarria zen, naturala iruditu zitzaidan haiek bi elkartzeko, iraganeko pauso guztiak horretara bideratuak egon izan balira bezala. Ni, aldi baterakoa, bidean tarteko pausoa.

“Zemuz dao Unai?”

Alaitzen galderak lekuz kanpo harrapatu ninduen. Sendatua, esan nion. Eta isiltasuna egin zen une batez telefonoan. Pozten zela esan zidan pausa luze horren ondoren.

Azaroan ospatu zuten ezkontza Alaitzek eta Jonek, San Martinetan. Jonentzat ez zegoen urtean une ederragorik, eta ez zuen gehiegi erregutu behar izan Alaitz konbentzitzeko. Kuadrillakoek denek pozik hartu zuten ideia gainera, Amasako jaietan dotore jantzita egotearen ideiak txiste asko eragin zituen hasieratik.

Mutil-lagun ohiak deitu zidan berria emateko, eta ezkontzan ni egotea nahi zutela esateko. Pozik hartu nuen berria. Edortak utzitako mina apaltzeko eta herrira bisita egiteko aitzakia polita izan zitekeelakoan, baietz esan nuen. Oker nengoen Edortaren kontuarekin baina. Herrira itzuli eta iheslari eta presoan aurpegiak paretetan marraztuta ikusi nituenean arrakala etorri baitzen berriro.

Agian horregatik ederra izan zen ezkontzan hartutako mozkorra. Beatriz, Amagoia, Laura, Leire, Eneko, Joxan, Mikel, Imanol, Uxo, Esti... aspaldiko lagunekin dantzatu, abestu, besarkatu nituen antzina bezala. Jon ere gogor besarkatu nuen egun hartan, askotan, gaztetako maitasunaren aztarna ederrak gure artean. Alaitz ere, gutxiago baina. Gau ederra izan zen, dantzan eta barrezka, lagunek, musikak eta alkoholak herrira itzultzearen ikara nolabait kulunkatuz.

Barruan orduak eman ondoren, Martina's Paf-etik atera nintzen aire pixka bat hartzera, gaza gorriko soineko fina gorputzean erabat itsatsita izerdiarengatik, alkoholak zorabiatua. Lehengusuak topatu nituen kanpoan, besarkatu, graziak egin. Esan zidaten Unai ere handik zebilela, oso ondo zegoela jada, erabat errekueratua, begiek irribarre egiten zieten anaiei.

Horren berri banuen etxetik ere, pozten ninduen izugarri. Tabernan omen zegoen eta ikusteko gogoek harantz eramanez ninduten.

Sekulako hotza egiten zuen, azkar ibiltzen saiatu nintzen, trakets. Zapata ondo jartzera gelditu eta orduan ikusi nituen, eliza atzean, erabat konektatuta zeuden bi gorputz, gauaren iluntasunak babesturik. Alkoholak nahastuta, morbo hutsak bultzatuta, inbidiak agian, hurbildu egin nintzen, diskretuki, haiengana. Batak bestearen aurpegia laztantzen zuten, sudurrak itsatsita, isiltasunean munduan esan beharreko guztiak esango balituzte bezala. Muxu luze batean murgildu ziren, eskua sartu zuten bata bestaren arroparen azpitik. Lotsak hartuta buelta eman nuen handik alde egiteko. Arreta deitu nuen, ordea, Alaitzena. Muxua eten eta Unairen sorbaldaren gainetik begiratu ninduen. Honek ere buelta eman zuen. Hirurak geratu ginen elkarri begira, isilik.

Inoiz ez nuen gau horri buruz inorekin hitz egin. Goizean Londresera itzuli nintzen, eta han eman nituen hurrengo urteak, etxera itzuli gabe. Jonekin kontaktua murriztu nuen, zeozer galdetuko ote zuen urduri hasieran, sentimenduak ez mugitzeko gero, distantziagatik azkenean. Alaitzekin ez nuen inoiz gehiago hitzik egin.

Coventry-tik Londreserako trenean nengoen amak deitu zidanean. Gaindosi batek hila topatu zuten Unai elizaren atzeko aldean, jada drogak herritik desagertuak omen ziren garaietan. "Beti garaiz kanpo, holakua zan Unai", zioen amak. "Lekuz kanpokua e bai", pentsatu nuen nik. Unairen heriotza izan zen itzultzeko behar izan nuen azkeneko aitzakia. Berria jaso eta hurrengo egunean gauzak bildu eta Euskal Herrira itzuli nintzen, hemen geratzeko.

Unairen hiletara jende asko hurbildu zen, lagunak, familia. Jon eta Alaitz ere bai. Eskutik helduta egon ziren, lagunak pilatzen ziren aldean. Urrutitik ikusi nituen, urrutitik begiratu genuen elkar. Urrutitik ikusi ahal izan nuen Alaitzen begietan giltzaturik zegoen min bortitza.

Gaur Iru Aldetarainoko bidea erdi isilik egin dugu Alaitz eta biok. Nire buruari galdezka nindoan zergatik esan ote diodan baietz, zergatik onartu ote dudan bere gonbidapena, hain ezusteko gonbidapen hori. Agian horregatik, ustekabeen harrapatzen gaituzten gauzek ez dizkietelako prestatutako erantzunei espaziorik uzten. Prestatutako erantzun ezezkoak ihes egin dit, eta ez zegoen atzera egiterik.

Ohiko galderak egin dizkiogu elkarri, “zemuz dana, nola zaude, zemuz lanian”, halakoak. Isiltasun luzeak etorri dira galdera sorta bat bukatzen zen bakoitzean. Hor aurrean neukan neska hura nire bizitza osoan modu batera edo bestera presente izan den pertsona zen, laguna, inoiz izandako lagunik gertukoena. Eta oraingo isiltasun horrek gogor kolpatu nau, hain nabarmena, hain gordina.

Besteekin Arratzainera igotzekoa zela esan dit, gauza batzuk egin behar izan dituela etxean eta beranduago igoko zela esan diela lagunei, gure lagunei. “Gure” esan du, argi. Jon jada han zegoela, deitu ziola ogi gehiago eramatea eskatzeko. Poztuko zela ni ikusteaz. Ea ez ote nintzen igoko.

“Ez, Donostia bueltatu behar det, attonan urtiak dia...”

“Beste batian ordun.”

Eskua hartu dit. Bortitza izan da, hasieran. Gero ez. Fabrikako hormigoizko hodi horietako bat imajinatu dut gure inguruan, sekretuak konpartitzeko horietakoa. Lasaitasuna ikusi dut bere begietan, mina sendatua, zoriona. Eta zorion hori nirekin konpartitzea eskertu diot.

Azken pintxo bat eskatu dugu, konpartitzeko.

Amasako eliza aurrean aparkatu zuenean lasaiago zegoen Miren, negar egiteak on egin zion. Kotxetik ateratzea ere laguntza handikoa izan zen, han gorako aire garbia.

Villabonan baino motelago ibiltzen hasi zen, agian jada nekatu xamar zegoelako, agian urteak zirelako han gora igotzen ez zela eta momentu hura dastatu nahi zuelako, jakin gabe. Edozein modutara ez zen geldirik geratu. Plazara joan zen zuzenean eta iturrian pausatutako bistak ematen zion inguru guztian bilatu zuen Praixku, hango bankuetan, tabernako terrazan, eliz atarian, iturritik mugitu gabe.

Amasan gora ibiltzen hasi zen gero, inguruko etxeak, baserriak, bideak aztertuz, baina leiho berdeak zituen baserri erraldoi batean aurrean gelditu egin zen. Aita ez zegoen hainbeste ibiltzeko moduan. Nola demontre igoko zer laurogeita bederatzi urteko gizon bat haraino. Buelta erdia eman zuen, eta kotxera abiatu zen.

Plazan ura edateko pausa bat egin zuen. Irribarre txiki bat margotu zen Mirenen ezpainetan. Bere amak ura hartzen zuen iturri beretik ura edateak, hainbeste urteren ondoren, osasuntsu sentiarazi zuen, bere herriko historia guztia gorputz barruan sartu izan balitzaio bezala. Bizipenak, oroitzapenak, erdi ezabatutako hainbat eta hainbat barre. Zenbat festa, zenbat oilasko joko, zenbat soka dantza, zenbat lagun, plaza hartan, aspaldi Iratiren aita ezagutu zuen plaza hartan, San Martiñetan. Masailak gorritu zitzaizkion.

Izerditan zegoen. Beroa jasanezina zen. Iramuñuko gaina begiratu zuen, enbataren aztarnaren bila. Garbia zegoen zerua, momentuz. Erlojua begiratu zuen orduan, eta iturriko urari beste trago bat eman ondoren, kotxean igo, eta Villabonara jaitsi zen.

“Bai?”

“nola, bai? Irati! Mila aldiz dettuizut!”

“A ba ez tet entzun...”

“berdin diyo, kaso in, attona Villabona etorria.”

“nola?... Villabona?”

“bai bai... eztatik ba! Nota bat utzi dit, Villabona zetorrela”

“nola zetorrela? Villabonan... zaude zu?”

“hoixe, haren atzetik etorri naiz! Irati, attona bakarrik torria! Ulertzezu? Bean bila nabil baño eztet bilatzen...”

Kotxea ezkerrera joan zitzaion pixka bat eta aldapan gora zetorren kotxe berdeak klaxona jo zion. Bolante-kolpearekin pasten kutxa lurrera erori zen.

“Esajeratuba!”

“Ama baño nun zaude?”

“oain Amasatik jeisten, ezin tzea Villabona etorri ezta?”

“ba... hemen nao ya...”

Mirenen arnasketa aztoratu zen berriro ere. Nolatan eta zertan eta zergatik askoren ondoren Irati azalpenak ematen saiatu zen baina amak ez zion hitz egiten utzi. Bolantea askatu gabe pasta kutxa lurretik hartzen saiatzen zen bitartean irratia piztu zen bat-batean, erabaki propioak hartzen zituen irradi hura. Alabak berarentzat prestatutako usb-ko nahasketan Hertzainak. Serraten ondoren, Hertzainak. Bere bizitzak momentu hartan zeukan logika berdina.

Itzali egin zuen, eta berdin zitzaiola, ez zuela jakin nahi, antolatu behar zirela aitona aurkitzeko eta geroago hitz egingo zutela. Baietz alabak, oraintxe joango zela aitonaren bila.

“Ta mobillai kasioizu, faborez.”

3. ATALA

Dilista eta legatzarekin aski ase, Praixkuk ez zuen postrerik hartu nahi izan. Irribarretsu zegoen, sagardoak lagunduta, baina legatza ondo sartu izanagatik bereziki. Ingurukoak begiratzen zituen, aurpegi ezagunak zaharreneak, gazteagoenak ezezagun. Guztiak ez, baina. Harriet mahaien artean pasa zen, terrazan bazkaltzen ari zirela eta komunera, eta kaixo bat eskaini zion irribarre handi goxo batekin.

“Koxkortu zea geo!”

“Bai, hamabi!”

Eskua astindu zuen Praixkuk horiek urte asko zirela adierazteko moduan, eta mutilak bere irribarrearekin alde egin zuen. Pentsakor geratu zen gizona, eta bere eskuak begiratu zituen une batez. Marka ilunez beterik zituen eskuak, zimurtuak, baina indartsu ikusten ziren oraindik. Alde batera eta bestera mugitu zituen, esku zahar haiek oraindik ondo mugitzeko gai zirela konfirmatuz. Horretan zegoelarik Agustina agertu zen, alabaren aspaldiko laguna.

“Praixku!”

“Ene, Agustina...”

Emakumeak besarkada gogor bat eman zion aitonari, honi aulkitik altxatzeko denborarik eman gabe. Gaztetatik Mirenen laguna zen Agustina, elkarrekin lan egin izan zuten paper-fabrikari, eta Praixkuri kariño berezia izan zion beti. Alderantziz ere bai. Emakume maitekorra zen, Salbadoran Fenwich orga jasotzaile bat eraman zuen lehenengo emakumea izanagatik herrian ezaguna. Sukaldari ederra zen Agustina, eta askotan egiten zuten sukaldean elkarrekin Praixkuk eta berak alabaren lagunek bazkariak antolatzen zituztenean.

Agustinak poza zeriola begiratu zuen Praixku.

“Nolatan zu hemen?”

“Ba ikustezu, bazkaltzen!”

“Bixitan etorri zea eo?”

“Hoi da, bixitan, bai.”

Kafea elkarrekin hartuko ote zuten galdetu zion Praixkuk, ilusioak jota, pozaren pozez. Baina ezin zuela esan zion Agustinak, familiarekin geratua zela eta terrazan bazkaltzen ari zirela. Nahi izanez gero haiekin elkartu zitekeela. Baietz esan zuen Praixkuk batere pentsatu gabe. Emakumea aurreratu eta terrazara atera zen. Praixkuk ahal zuen bezain azkar argazki-karpeta eta bastoia hartu eta Agustinaren atzetik joan zen.

“Enijoa paatu gabe, e!”

Zerbitzariak barre egin zuen. Kanpora atera zenean familia ikusi zuen bi mahaitan eserita. Agustinarekin senarra azkar ezagutu zuen. Semea eta erraina ez hainbeste, baina eskua eman zien betidanik gogoratuko balitu bezala. Biloba txikia hor zegoen ere, ez hain txikia dagoeneko, eta haren ondoan ezagutu ez zuen hogeitau urteko gaztea.

“Biloba da ere, Hodei, beste semeana.”

Agustinarekin ondoan eseri zen Praixku, eta baietz esan zien, kafe bat hartuko zuela. Familiakoek galderak egin zizkieten hasieran, zer moduz, zer moduz seme-alabak, bilobak, eta erantzun zituen berak, labur, baina irribarretsu. Orioko tren geltokian bezala begiradak erakartzen zituen, lekuz kanpo berriro ere, berea ez zen familia horrekin familia-bazkalostean.

Familiakoak berehala itzuli ziren aurretik zeukaten elkarrizketara, eta Praixku isilik geratu zen, Agustinarekin irribarre atseginak eskaintzen zizkion arren, deseroso xamar. Beste aldean zuen biloba gazteenari karpeta zuten argazkiak erakustea bururatu zitzaion, aspertuta ematen zuelako gaztea eta aitzakia bezala. Karpeta irekitzerakoan Amasako iturria agertu zen, neskamea ura hartzen Iturrigoxo kuttunean. Argazkiak Praixku harrapatu zuen, erabat. Ez zuen argazki horretan erreparatu lehenago Migelek erakutsi zizkionean.

“Bakizue nola aukaten iyotzia Amasa?”

Hogei urteko gazteak bere burua eskaini zuen. Kotxea zuen eta jada ez zuen gehiago han familiarekin eserita egon nahi, eta edozein modutara laster joan beharko zuen lagunekin geratua zelako. Ideia ona iruditu zitzaion Praixkuri.

Besteak zertxobait harrিতuta utziz, Agustinari bi muxu eman eta gazte harekin abiatu zen.

“Poztu naz zu ikustiaz!”

“Ni re bai.”

Eta ordaindu gabe alde egin zuen gaztearen atzetik.

Kotxea izenik gabeko kale batean zegoen, nazionalaren azpian. Zarata aztoragarria zen, eta gizona errepidea eta herria banatzen zituen hesi berdeari begira geratu zen une batez. Mutikoak kotxea ireki eta agurearen zain geratu zen, zer egiten ote zuen ulertu gabe.

“Ba al goaz?”

Praixkuk, oraindik nazionalari begira, burua astindu zuen haserre eta kotxean sartu zen.

Kotxe berde itsusia zen hura, zaharra. Gurasoena izango zen edo, berria erosterakoan semeari emandakoa. Deserosoa zen ere, Praixkuk ezin zuen eserlekuan postura errosorik aurkitu. Gidaria gainera ez zen oso abila, eta nazionalaren azpiko tuneletik pasatzen ari zirenean ozta-ozta saihestu zuen beste erreitik pixka bat atera zen kotxea.

“Telefonoz ai zan emakumia!”

Bere burua defendatu zuen mutilak. Praixkuk, baina, burua beste lekuren batean zeukan jada, tunelari begira, bidegurutzeari begira, errepideari begira, jatetxeko terrazan zegoen gizon irribarretsu horren aztarnarik ez orain bere aurpegian.

Amak telefonoz esandakoa Alaitzi kontatu eta mahaitik altxatu zen Irati. Nahi izanez gero lagunduko ziola eskaini zuen bere burua Alaitzek, baina Iratik ez kezkatzeko, aitona seguruenik ondo egongo zela tabernaren batean lagunerekin, eta kuadrillakoak kezkatuak izango zituela, joateko lasai. Honako honetan Irati izan zen besarkadarako lehen pausoa eman zuena. Denbora beharko zuen oraindik txikitako lagunarengandik lehen bezain gertu sentitzeko, baina puntu horretatik aurrera errazagoa izango zela ematen zuen. Hori erakusten zuten bederen haien irribarreek.

Tabernatik atera eta pentsatzen geratu zen momentu batez Irati, plan estrategiko bat asmatzen. Kalearen alde batera eta bestera begira bere buruan herriaren mapa marrazten zuen. Azkenean erabaki, eta Kale Nagusia hartu zuen.

Arropa dendako erakusleihoan bere irudia islatua ikusi zuen eta eten bat egin zuen bere buruari begiratzeko. Beste pertsona bat ematen zuen, alaiagoa, lasaiagoa. Presa bazuen ere begitartea leun, irribarre txikia, udako arropa finak bere gorputzaren forma ederrak markatzen eta kolorez beterik. Pozik geratu zen ikusi zuenarekin, eta bere pausoak seguruagoak bihurtu ziren, indartsuagoak, helduagoak.

Kaleko denda guztiak itxita zeuden, igande arratsalde berotsu hartan. Guztiak ez. Ilara zegoen pasteleria zaharreko atean, patinete eta patinez betetako ilara, litxarreriak erostera sartzeko irrikan haurrak. Txikitan hainbestetan egondako gozoki denda zaharra berdin-berdin aurkitzeak irribarrea zabaldu zion Iratiri. Erakusleihoan panpinak, pastak, goxokiak, bilduma egiteko kotxeak, bonboiak. Azukre usaina zerion barrualdeari eta atetik begiratzeko desioa saihestu ezinean, apalez betetako paretak ikusi zituen, fruitu lehor eta goxokiz betetako kristalezko pote handiekin. Denboran atzera egindako bidaia ematen zuen, haur desberdinak, arropa desberdinak, denda berdina.

Ilara luzea egon izan ez balitz izozki bat edo palmera zuri horietako bat erosiko zuen Iratik, baina ez zegoen denborarik horretarako. Gehiegi kezkatu gabe baina arduraz aitona bilatu behar zuen, batez ere amaren urduritasuna apaltzeko.

Errebote Plazara iritsi zen, eta banan-banan plazako banku guztiak aztertu zituen begiradarekin. Eguzkiak gogor jotzen zuen, baina plaza jada hurrez eta familiez beteta zegoen, siesta ondoren bizira itzulia. Banku guztiak okupatuta zeuden: erabat estalitako bi emakume hizketan, agure bikote bat bi ume txikirekin, neska gazte bat umearen aulkitxoarekin, oso ozenki hitz egiten zuten haur beltzaranen talde bat pasteleria zaharrear erositako litxarreriak jaten. Ez zuen gogoratzen noiz eseri zen banku horietako batean azken aldiz. Ez zuen horretarako arrazoirik ikusi inoiz, plazan geratzeko. Festetan ez bazen, plaza zapaltzen zuen gutxietan beste nonbaitera joateko izaten zen, beste leku batean egoteko.

“Hemen ere de paso, Irati.” Esan zion bere buruari.

Praixkuren arrastorik ez. Udaletxeko portxean sartu zen, badaezpada itzalaren bila ote zebilen aitona, baina deus ez. Beste aldera zeharkatu zuen orduan Berdura Plazara joateko. Hango bankuetan ere gogoratzen zuen Iratik aitona eserita, batez ere amona bizi zenean. Lehenago hainbesteko bizia izan omen zuen plaza hura hutsik zegoen orain, inor ez harrizko bankuetan eserita, jendea kale batetik bestera pasatzeko bidegurutze bat, besterik ez.

Bidegurutzeek, baina, gauza onak ekartzen dituzte batzuetan, eta Xabat agertu zen, bizikletarekin. Aztoratu xamar zebilen, hau eta bestea egin behar zituela, baina Iratik aitona kontua kontatzerakoan bere bizikleta eskaini zion. Pixka batean eztabaidatu ondoren, Iratik eskertu, bizikleta hartu eta urtetan bat erabili ez izateagatik trakets, laguna agurtu eta aitona bila abiatu zen.

Itsasoan hildakoarena egitea maite dut, goizean goiz batez ere. Aitaren gosaria prestatu, itsasoan sartu eta hildakoarena egin. Begiak irekiko ditudan hurrengoan itsasoak nora eraman nauen ikusteko desioa eta ikara aldi berean, bizitzan falta zaidan ausardiari lekua uztea, une batez. Gaur aztoratua ibili naiz goizean, gauean urduri egon naiz, ez dut ondo lo egin, eta ez

dut denborarik izan betiko bainua hartzeko. Uste dut Amasako txakolindegira helikopteroz ailegatu ziren horiekin amets egin dudala, ezin dut ziur esan. Orain itsasoan sartuko nintzateke. Izerditan nago eta haizeak ez dauka hemen freskotasunik, hezea, itsaskorra da.

Ez dakit zer egin dudan gaizki. Alabarekin beti maitekor, babesle, arduratsua izan naiz. Erabaki duen guztian errespetatu eta lagundu izan dut, hor izan nau beti behar zuenerako. Baina ez nau gehiegi behar izan. Edo oso gutxitan erakutsi dit. Oraindik gogoratzen dut zortzi urterekin Tolosara aitarengana trenez bera bakarrik joateko gai zela esan zidanean, ez zela beharrezkoa nik gehiago laguntzea. Lagundu nion, noski, urte batzuk gehiagotan. Ez zuen eztabaidatu, baina ostiralero, etxetik motxila hartuta ateratzen ginenean galdera berdina egiten zidan.

“Noiz jungo naiz ni bakarrik?”

Donostian hainbeste gauza egiteko, hain lanpetua, hainbesteko gauza atzeratuta. Zer demontre egiten zuen Villabonan? Telefonoz ez naiz galdetzeko gai izan, lekuz kanpo harrapatu nau, haserretu egin naiz. Proposatu izan diot azken urteetan, ea egun pasa Villabonara joango ote ginen biak, txikitan bezala meriendatzera gonbidatuko nuela, gauzak kontatuko genizkiola elkarri. Alferrik. “Herria zerta, hartuko deu kafia Donostin, eztakat gogoik gaur e trena hartzeko”.

Oso zaila izan da kotxea aparkatzeko lekua topatzea. Larrea auzoan utzi dut azkenean, aparkatu daitekeen edo ez inork ez dakien izkina batean. Modu kaotikoan utzitako kotxe pila zeuden zentzurik ez duen auzo horretan, izenik gabeko kalez osatuta dagoen eta etxe guztien zenbakiak desordenaturik dituen horretan. Udaltzainak isunak jartzera etorri gero nirearen aurretik horretarako beste kotxe asko zituztela pentsatu nahi izan dut.

Aitak bakarrik zenbat ordu zeramatzan kalkulatu dut, ez dakit zertarako, gehiago urduritzeko besterik ez. Non egongo ote zen, bero honekin, ondo egongo ote zen. Zein arropak hartu ote zituen, espero nuela alkandora urdina jantzi ez izana, bero handia ematen duelako horrek.

Kale Berrian behera ibiltzen hasi naiz, berriro ere Zentroa tabernara joateko ideiarekin. Maixabel eta Juanita aurkitu ditut orduan. Beti dotore, beti apain, bizkiak ematen dute. Seme- ilobarekin bazkaltzera zihoazela eta zertan nenbilen, eta nire aitak Oriotik alde egin eta Villabonara etorri zela bera bakarrik, eta ez nekiela non zegoen, eta haren bila ari nintzela, eta Irati ere bai, eta “imajinatze al dezue gizona bea bakarrik trenien ta autobusian ta herrin bakarrik” eta ez zegoela modurik bera aurkitzeko, eta erositako mugikorra sukaldeko mahai gainean utzi zuela beti bezala, ia arnasarik hartu gabe erantzun diet nik.

“Lehenoa ikusiet ba!”

“Bai? Nun?”

“Goizian! Lasai asko zeon koxkan exeita. Oso ondo ikusi et.”

Hunkitu naiz, aita ondo zegoela, ondo ikusi zutela, burua positibo mantendu behar nuela. Bizkiek zorte ona opa didate eta bere bidea jarraitu dute.

Bere bila jarraitu behar banuen ere, zeozer aldatu da nire barnean, lasaitasuna eta aldi berean haserrea, ni arduratuta eta aita patxadaz. Demontrezko gizona. Aurkitu, eta besarkatu nahi nuen.

Oriamendira joatea erabaki dut, Amasako baserria uzterakoan gurasoek hartu zuten pisu ingurura, hango etxeen artean ibili eta ea aita handik topatzen nuen, nostalgiak hartuta edo, bere Villabonako auzoan. Horrela deitzen dio berak, Villabonako auzoa, Amasako jatorria ohorez defendatuz. Urte askoz gehiago eman ditu Villabonan Amasan baino, baina ez esan behekoa denik. Bera goikoa da. Eta egoskorra, Irati bezala.

Baserria bota zutenean hasi zen aitaren isiltasuna nabarmentzen, nik ondo ezagutzen eta hainbeste maite nuen ahots hori desagertzen. Amak pasako zitzaiola esaten zuen, baina ez da horrela izan. Mina ez du erakutsiko baina barruan daramala badakit, eta isiltasun horren atzean ezkututzen dituela baserriko oroitzapen guztiak.

Behin Iratik baserriko bizitzari buruzko eskolako lan bat egin behar zuela eta aitonarekin elkartzea erabaki zuen. Oriamendira joan ginen arratsalde pasa, eta Iratik aitonarentzat pastak erostea proposatu zuen, horrekin eskertuta eta hitzun egongo zelakoan. Bere koadernoarekin aitonaren aurrean eseri zen sukaldeko mahaian, irrikaz. Bakarrik uzteko eskatu zigun amona eta bioi, alde egiteko. Horrelakoa zen Irati, gauzak beti argi.

Aitonarekin ondo egongo zela pentsatu eta ama eta biok paseoan atera ginen. Itzuli ginenean aitona telebistaren aurrean zegoen egongelan eta Irati, haserre, nirea izandako gelako ohean etzanda, sabaira begira. Aitonak ez zion deus kontatu, ez zuela gogoratzen eta ez zuela horretaz hitz egiteko gogorik, lan horrek ez zuela ezertarako balio eta zeozer jakin nahi bazuen Amasara igotzeko eta hango baserritarrei galdetzeko. Iratik asmatzea erabaki zuela orduan, amorruek jota, baina ez zitzaiola ezer bururatu. Esaldi bakar bat zeukan neskatoak koadernoan idatzita, lanerako lema edo izenburua ematen zuena: "Baserririk gabeko baserritarra".

Ni memoria egiten saiatu nintzen eta Iratiri nire txikitako baserriko oroitzapenak kontatzen bere lanean laguntzeko, baina sei urte nituen Amasatik jaitsi ginenean, eta gutxi ziren memoria horiek. Osaba-izebek eta lehengusinak bertan bizitzen jarraitu zuten urte batzuez, eta osaba bakarrik gero, baserria nazionala egiteko bota zuten arte. Askotan joan izan ginen bisitan, horren oroitzapenak banituen, baina igandeetako bazkari horiek ere ez ziren Iratik ezagutu nahi zituenak.

Oriamendiko kalekak erdi hutsik topatu ditut. Esekitokietan arropa ugari zintzilik, estilo desberdinetako musikak leihoetatik ateratzen, balkoietan kalea aztertzen zuten agureak eta etorkin gazteak haien seme-alabekin. Ez zegoen aitaren arrastorik, baina bizkiek ondo ikusi zutela entzun ondoren lasaiago sentitzen nintzelako edo, gurea izan zen pisura hurbiltzeko eta nola zegoen ikusteko gogoak sartu zaizkit.

Baxu bat zen, ezkerrekoa, arrosaz margotutako eraikinean. Kaleko bi aldeetara ematen dute leihoek, eta gortinez estalita daude guztiak, etxea ez baita oso diskretua. Nik urdin argiko gortinak gogoratzen nituen, orain zuri batzuk dituzte. Kaleko bi aldeetan dauden lorategiak ondo zainduak topatu ditut, leihoetaraino iristen diren arrosondo handiekin. Leihora pixka bat

gehiago hurbildu nahian, nire espazio une honetaz gozatzen ari nintzela, antiojo txikiak zituen gizon bat topatu dut lorategiko lurrian, harri txiki batzuekin bidexka bat egiten. Ia zapaldu egin dut. Gizona izutu da eta zenbait kexa itsusi bota ditu erdaraz. Barkamena eskatu diot eta kalearen beste aldera joan naiz azkar, handik alde egin nahian. Ez zegoen gehiegi ikusteko, eta, desiratu arren, ez naiz ausartu etxeko tinbrea jo eta barrukoei begirada bat botatzen utziko ote zidaten galdetzera.

Behin telebistako zientifiko bati entzun nion burmuinak ikasitako edo bizitako guztia gorde behar izango balu eztanda egingo lukeela, neuronen arteko konexioek ezingo luketela jasan eta gainkarga elektriko batek burmuina erreko lukeela. Horregatik ahazten ditugula gauzak, burmuinak ezandarik egin ez dezan. Agian horregatik azkenaldian ez dut jendearen izena gogoratzen, beste gauza batzuei lekua emateko borratu omen ditu nire burmuinak. Kurioso da hala ere buruak egiten dituen aukeraketak. Baxu hartan bizitako hogeita hiru urteetatik gauza gutxi batzuk gogoratu, baina beranduago babes eske etorri nintzeneko eguna ordea atzo izan balitz bezala grabatuta daramat azalean. Joakin desagertu zen eguna izan zen. Urte bateko Irati besoetan, dardarka egon nintzen lorategiko lurrian eserita, gurasoak etxera itzuli ziren arte.

Aitaren arrastorik ez eta beste leku batzuetan bilatzea erabaki dut. Ezin nuen denbora gehiago galdu, goizean aita ondo ikusi zuten baina auskalo nola egongo ote zen orain, hainbeste orduren ondoren, gizon gaixoa bere urtebetetze egunean bakarrik. Bere urtebetetze eguna zela ere ia ahaztuta neukan jada, pastak kotxeko beroarekin desegiten arituko zirela.

Nazionalean kamioi batek bozina jo du, burrunba izugarria, nire ondoan egon izan balitz bezala. Harrigarria da nola ohitu garen herrikoak errepide erraldoi horretara, etxeetatik hain gertu pasatzen dena, etengabeko zarata eskaintzen diguna. Orduan bururatu zait. Nazional hura egin aurretik Garmendihandia gure baserria zegoen lekura joan behar nuen, badaezpada, aitaren bila. Neuronen arteko konexio horietako bat izan da, ezandarik gabekoa. Eskerrak.

Bizikleta hartuta azkar zeharkatu zuen Iratik kale nagusia, Amasa kafetegiko koxkan begiratu zuen eta Zentro tabernan ere, terrazan eta barruan. Lagun batzuk agurtu, beste batzuekin ezikusiarrena egin, azkar mugitzen zen kaleetan, aitona lehenbailehen aurkitu eta egoera horrekin bukatzeko. Amari deitu zion, aitona alde zaharrean ikusi ez zuela esateko. Amak, baina, ez zuen telefonoa erantzun. Iratik, pentsatzeko denborarik hartu gabe, eliza arrosaren aurretik pasa eta Oriamendira joan zen.

Aitona-amonen auzoko kaleetatik buelta batzuk eman zituen, lorategien artean. Kalexka horietako batean geldirik geratu zen momentu batez, desorientatu xamar, eta bat-batean gogoratu izan balu bezala aitona-amonarena izandako pisura hurbildu zen. Azken urteetan gutxi izan ziren aitona-amonei egindako bisitak, gutxi izan baitziren Villabonara egindakoak ere. Horrek asko penatzen zuen, amonaren azken urteetan ez zela oso presente egon, ez zituztela kroketak prestatu elkarrekin, amonak ez zizkiola istorioak kontatu aitonarekin egurrezko itsasontziak eraikitzen zituen bitartean, ez zutela paseorik eman besotik helduta.

Oroitzapen politak zituen pisu horri lotutakoak, hezetasun usaina eta armiarmak zituen pisu hura, eta gustatu zitzaion etxea berriro ere ikustea. Gizon txiki bat aurkitu zuen etxeko lorategian lurrian, harri batzuekin zeozer egiten. Agureak serio begiratu zuen. Deseroso sentitu zen Irati orduan eta aitonaren arrastorik ez zegoenez antiojodun gizona jator agurtu eta buelta eman zuen.

Kale Berrian geratu zen, zutik, bizikleta eskuan, nora joan ez zekiela, amaren deia jaso zuen arte. Gidatzen ari zen ama eta bozgorailua jarrita beti bezala oihu egiten zuen.

“Garmendihaundia noa.”

“Noa?”

“Attonan baserria.”

“Baño... eztao...”

“Nun zaude?”

“Oriamendin, eztakit noa jun... ama? Ama?”

Deia moztu zen, ama gidatzen eta auskalo zer egin zuen telefonoarekin. Telefonoa eskuan zuela Iratik kuadrillako taldeko mezuak begiratu zituen, gainetik. Ondo pasatzen ari zirela ematen zuen, irribarre egin zuen. Amaren mezu bat jaso zuen orduan.

“Iyo Amasa, bazpa re.”

Telefonoa sakelan sartu, bizikleta hartu eta martxan jarri zen.

Mutikoak bolante-kolpe bortitza jo behar izan zuen Amasako errepidean gora zihoazela, Praixkuk bat-batean ideiaz aldatu eta buelta ematea eskatu zionean.

“Garmendihaundia jun nahi det.”

Indarrez esan zuen, seguru, egun osoa patxadaz hartu ondoren ordua zelako jada benetan joan nahi zuen lekura joateko. Hodeik hori zer zen ez zekiela kexatu eta berak zuzenduko zuela esan zion aitonak, eta berriro herrira jaitsi, Kale Berrian gora, eta Etxeondoko tunela pasata Garmendia baserriraino iritsi ziren.

Han kotxea gelditzeko eskatu zion Praixkuk mutikoari eta honek, erabat harrituta, kasu egin zion. Baserri handia zen hura, ederra. Hori ez zen, ordea, Praixkuren helmuga.

Bitan pentsatu gabe kotxetik jaitsi zen gizona, eta baserritik beherantz zihoan bidetik ibiltzen hasi zen, azkar, aztoratua, bastoiaren laguntzarekin. Gazteak ez zekien zer egin. Agure hura nora zihoan ulertu gabe, eta trakets ikusten zuelarik, haren atzetik joatea erabaki zuen, distantzia gordez, erotuta edo ematen zuelako lehenago hain jator ematen zuenak, eta berak ez zuelako ezeren ardura eduki nahi.

Praixku maldan behera zihoan, kotxez eta kamioiz betetako nazionalera zuzen zeraman bide huts horretatik.

“Noa zoaz?”

Erantzun gabe aurrera jarraitu zuen, ahal zutena baino arinago joan nahi zuten hankak ia kontrolatu ezinean. Edozein momentutan eroriko zela ematen zuen. Gorputz zahar horrek halako indarra nondik atera zuen ulertu ezinean begiratzen zuen Hodeik, eta haren atzetik jarraitzen zuen.

“Ezin tzea hortik jetsi, arriskutsua da.”

Praixkuk ez zion kasurik egin. Baina pixka bat gehiago jaitsi ondoren gelditu egin zen, bat-batean. Errepidetik atera eta belar gaiztoen artean sartu zen orduan, zuhaitz argal batzuen artean, sasiz betetako puntu batean oinak firme jarri eta erabat gelditu zen arte.

“Hemen zeon, hemen bertan.”

“Ze?”

“Garmendihaundia. Gure baserriya. Gure etxia. Hemen, hemen bertan.”

Ingurura begiratu zuen Praixkuk, alde batera eta bestera, ezerezean egondakoaren arrastoa bilatu nahian. Metro gutxi batzuetara nazionalaren burrunba izugarria zen, zarata gorputz barnean sartzen zen, bibrazio ia jasanezina.

“Kendu in ziguren. Dana. Behiak genittun, lurrak, baratza ttiki bat. Edurne zoriontsu zan hemen. Ni re bai. Danak. Eta kendu ziguren. Ni enitzan hemen hau babesteko, seme ttikina gaixo zan ta Villabona jetsi bihar izan genuen bizitzea. Baño ni eunero etortze nitzan, eunero! Baserrin launtzea. Gure etxia zan. Anayak emantzun permisua, ta ni konbentzitu nindun, engañatu! Ximorrak janda zeon, nekatuta, etzula baserrin geyo lan in nahi. Ta nik ya pixua ta dana ta ezin atzea in. Etxia bota ziguren, dana! Zenbat bota zittuen! Barriola, Subijana, mojen etxea, jauregitarrena, Etxauntxiki, Lumane... Karretera hau itteko! Oaindik goatze naiz Pedro medianan gañetik zankalatra itten karretera kruzatzeko, betiko bidia itteko... Bere betiko biddia. Guria. Ta haiek dena hautsi zuen... Guria zan lurra, etxia... Ta oain eztao ezer, ezer...”

Mutilak isilik begiratzen zuen agurea, eta esaten zuena entzuten saiatzen zen, kostata. Errepidearen zaratarekin zaila egiten zitzaion, eta madarikazioak botatzen zituen aztia ematen zuen gizon horrek lastima eman zion une batez. Alde batera eta bestera begiratu zuen, eszena horren testigurik ote zegoen ikusteko, norbaitekin bere harridura eta ez ulertzea konpartitu nahian.

Praixku isilik geratu zen hitzak bukatu izan balitzaizkio bezala, urtetan egindako hitz-jario horrekin leher eginda, sasi-baso horren erdian, izerditan. Begiradarekin nazionaletik pasatzen ziren kamioi eta kotxeak jarraitzen zituen, hankak baserria egon behar zuen tokian ondo giltzaturik.

Hodeiri luzeegi egin zitzaion tarte batez egon ziren horrela, bera bide erdian eta agurea belar txarren artean. Ez zen ausartzen deus esatera, eta mugikorra begiratzen zuen urduri, Praixkuk handik noiz mugitu erabakiko zuen momentuaren zain.

Momentua etorri zen baina, bat-batean. Deus esan gabe, begiak gorrituta, Praixku sasien artetik atera eta mutilaren ondotik pasa zen, motel-motel, kotxerantz. Gazteak azkar erreakzionatu eta aurreratu zitzaion, kotxea irekitzeko. Oraindik agurearen zain egon behar izan zuen pixka batean, lehen baino askoz mantsoago ibiltzen baitzen orain, zaharrago.

“Baserrik gabeko baserritarra”, esan zion mutilari, irribarre mingots batekin. Gero kotxean sartu eta itxoiten geratu zen. Gazteak ingurura begiratu zuen azken aldiz, gertatu berria zena oraindik ulertu ezinean. Kotxera sartu zen gero eta martxan jarri zuen.

“Oain bai, eaman nazu Amasa.”

Garmendihandia egon beharko lukeen leku fantasma hura utzi, eta Amasa bidea hartu zuten.

4. ATALA

Garmendihandia egon beharko lukeen lekura iritsi zen Miren, urduri. Bidean Iratirekin telefonoz hitz egiten ari zenean balaztada bortitza egin eta poltsan zeramatzan gauza guztiak lurrera erori ziren, pastekin batera. Telefonoak ere eskuetatik ihes egin zion. Ahal izan zuen moduan izkina batean gelditu eta telefonoa berreskuratu zuen. Mezu bat bidali zion alabari jarraitu aurretik.

“Iyo Amasa, bazpa re.”

Ez zekien alabak kasu egingo ote zion, agian beste ideia bat izango zuen berak.

Garmendia baserrian aparkatu zuen. Kotxetik jaitsi eta alde guztietara jiratu egin zen, lekua ulertu nahian. Desorientatua zegoen. Oso orientazio txarra izan zuen Mirenek beti, eta urduri zegoenean, txarragoa. Baserritik ezkerredera hartu zuen, landa batean sartuz. Minutu batzuk aurrera egin ondoren hortik ez zela konturatu eta atzera egin zuen, berriro baserrira. Han pentsatzen geratu zen berriro ere. Baserriaren bestaldera joan eta orduan ikusi zuen nazionalera jaisten zen errepidea.

Jaisten hasi zen, motel, uneoro alde guztietara begiratur. Zalantzatan zegoen, ez zuen lekua gogoratzen, ez zuen deus errekonozitzen. Behera eta behera, ia nazionaleraino iritsi zen. Zarata bortitzak inpresio handia eman zion.

“Atta! Praixku!”

Oihu egin zuen, egun osoan zehar eztarrian harrapatuta zuen oihua. Kotxeen zaratak erantzun zion, besterik ez.

Neka-neka eginda zegoen. Ibiltzera ohitua eta aktiboa zen arren, adinak ez zion barkatzen. Goizean goiz esnatu zenetik gelditu gabe egona zen, alde batetik bestera, atsedetik gabe, eta gorputzak ez zion jada behar bezala erantzuten. Geldi-geldirik, errepidearen erdian zutik,

logikarik gabeko leku berde eder zaratatsu hartan, begiak itxi zituen une batez. Arnasketa sakon bat egin zuen, baina honakoan ez Iratik erakutsitako moduan, bat bi eta hiru hartuz, bat bi eta hiru botaz, baizik eta berak nahi izan zuen moduan. Eta hori bai, azkenean, balio izan zitzaion.

“Alde zaharrea noa. Ez padeu laister billatzen, polizia dettukoiot.”

Mezua Iratiri bidali, kotxea martxan jarri, eta herrirantz abiatu zen.

Kotxe berde zaharra urruntzen ikusi zuen Praixkuk, Amasako plazako banku batean esertzen zen bitartean, Iturrigoxo bere iturri kuttunaren parean. Mutikoak zalantzak izan zituen joan aurretik, agurea hor utzi, bero jasanezin horren pean, baina berak behin eta berriro errepikatu zion ondo zegoela, bertan egon nahi zuela tartetxo batez eserita, eta aurkituko zuela Kalera jaitsiko zuen norbait.

Neka-neka eginda zegoen Praixku. Bankuan eserita egon nahi zuen, ezer gehiagorik egin gabe, hain ondo ezagutzen zuen eliza eder horren aurrean. Atzean zeukan tabernako terraza beteta zegoen, igande arratsaldeko giroak horretara animatzen zuen, eta jendearen ahotsak eta mahai metalikoetan uzterakoan edalontziek ateratako soinuak baserrietatik zetozen traktoreen motor eta behien marru urrutiekin nahasten ziren.

Garmendihandira egindako bisitak aztoratuta utzi bazuen ere, plaza horretan egoteak nolabaiteko bakea ematen zion. Zapiarekin kopetako izerdia lehortu, eta eskuan zuen argazki karpetatik iturriarena atera zuen. Aurrean zuen errealitatearekin konparatu zuen, antzina eta oraina, eta etsipen irribarre bat marraztu zitzaion aurpegian. Ez zen minik nabari berarengan, eta pixkanaka bizitzaren gorabehera guztien gainetik leku horrek eragiten zion baretasunak kulunkatu zuen.

“Al ikullu ya no vuelve
mi buen astua, no vuelve, no;
ya no brinca de poxa
cuando cabeza tocar alguno;
arrayua suerte txarra
con tripako miña poner hizo.
Biotzeko astu gaxua
malkos tiraba cuando murió.”

Astoaren bertsoak kantatu zituen Praixkuk, ahots leun eta ia entzunezin batekin, nekeak jota, pozak bihotza hartuta. Orain bai, etxean zegoen.

Kanpaiek zazpiak jo zituzten. Begiak itxi zituen agureak inguruko herri guztietatik entzuten ziren kanpai horien zarataren eraginez. Zenbatu zituen kanpai kolpeak, bat, bi, hiru... eta zazpigarrena eta azkena entzuterakoan, itzultzeko ordua zela erabaki, eta altxatu egin zen. Satzelaitako gaina begiratu zuen ibiltzen hasi aurretik. Hodei potolo zuri bat sartzen ari zen zegoeneko mendien gainetik.

“Enbata dator.”

Furgoneta zuri batek bozina jo zuen. Oraindik errepidea zapaldu ez zuela eta bozina jotzen ziotelako kexaka hasi zen Praixku, furgonetakoak ezagutzen zuela konturatu zen arte.

“Praixku! Ze ondo ikuste zattuten!”

Praixkuk ezin zuen gogoratu jator hitz egiten zion gizon hori nor ote zen, baina bera ere jator izateagatik, naturaltasunez erantzun zion.

“Ahal dan bezela!”

Nora zihoan eta “Kalia” erantzun zion Praixkuk, eta eramango zuela berak eta igotzeko, eta ahal izan zuen moduan igo zen agurea furgoneta altu horretara.

Errepidean behera zihoazela gizon teorian ezagun horrek etenik gabe hitz egiten zuen, zerbaitekin despistatu zen arte.

“Iruitu zait horko hoi zure biloba zala, Irati!”

“Ezin, Irati Donostin dao.”

Eta gizonak hizketan jarraitu zuen, ia arnasarik hartu gabe.

Ez naiz zuzenean Amasako errepidetik igo. Aitonarentzako malda handia zela hura eta agian beste bide bat hartu zuela pentsatuta, Aranerrekako bidea hartzea erabaki dut. Aitonarena aitzakia izan da, nik ere ez baitut nire burua gai ikusi beste aldapa bizikletaz igotzeko.

Etxeondoko tuneletik pasa eta ezkerrean egin dut lehenengo baserrien artetik. Oiloak lasai asko topatu ditut nazionalaren zarataren azpian erdi lo. Zeberio baserria pasa eta basoan sartu naiz, Xabaten bizikletara oraindik ohitu ezinean, martxa batetik bestera zentzurik gabe aldatuz.

Izerditan nengoan erabat, eta zuhaitzen arteko freskotasuna eskertu dut. Bakar-bakarrik nengoan, normalean aski erabilia bide hartan ez dut gaur inor topatu. Karobira iristean bizikletarekin borrokan ari nintzen, eserlekua jiratua zegoela eta ipurdiarekin zuzen jartzen saiatzen, eta halako logika oker batekin martxaz aldatu dut berriro ere, beharrezkoa ez zenean. Katea atera da, noski. Primeran, pentsatu dut, nola konpondu jakingo ez nuelakoan.

Bizikletatik jaitsi eta pixka bat aurrerago dagoen egurrezko mahaiaren kontra jarri dut, mekanika lanekin hasteko.

Uste dut lehenengo aldia izan dela bide horretan bakarrik nengoela. Aurretik baten batean gertatu izan bazait, ez dut gogoratzen. Alaitz edo Uxoarekin askotan, Jonekin, aitona eta amonarekin, aitarekin. Amarekin ere ez naiz inoiz hemen bakarrik egon. Amarekin paseo gutxi eta eztabaida asko izan ditut. Berarekin paseoek helburu bat izan dute beti, hara edo hona zeozer erostera, eskolara, trenera, aitona bisitatzera, medikura. Inoiz ez paseatzeko helburu hutsarekin. Amak paseatu, paseatzen du. Nik ere bai. Elkarrekin, inoiz ez.

Aitarekin askotan joaten nintzen Aranerrekarra, gurekin bizi izan zen bi urte eskas horietan. Gaur bezala bizikletekin edo oinez, beti gustura egoten ginen, beti barrez. Umore ona zuen aitak, orain ere baduela uste dut, apalduago badago ere. Bide hau zen guretzat paradisua, araurik gabekoa, eztabaidarik gabekoa. Amak bitartean lanean ziharduen, askotan asteburuetan ere bai.

Errekaren soinua eta zaldien joareak, besterik ez zen entzuten. Bele bat, noizean behin. Eskuak erabat belztuta katea bere lekuan sartzea lortu dut, kostata. Bizikletan igo naiz eta bideari ekin diot, aitonaren bila.

Zubira iritsi eta ezkerretara egin dut, orduan bai maldan gora, goiko baserrietaraino. Arnasestuka iritsi naiz, izerditan erabat blai eginda. Identifikatzen ez dakidan landareren baten usainak birikak ireki dizkit, txorien kantuak, animalia baten ezkilatxoa, muleta batzuen pausoen antza duen soinu erritmiko bat. Edertasuna zentzumenetan, arnasketa normaltasunera itzultzen saiatu naiz. Nire ondotik emakume bat pasa da, arin, mendiko bastoiekin lagunduta, tipi-tapa tipi-tapa, nik ia konortea galtzen nuen bitartean. Ni baino hogeita hamar bat urte zaharragoa izango zen, kalkulatu dut. Harrokeriak bultzatuta, aurrera segitu dut.

Amasara igo aurretik Arrantzabin begirada bat botatzea bururatu zait. Jatetxe itxiak sorgindutako etxea ematen du, eta bere aurrean etxearen imitazio zehatza den maketak, ere bai. Astoen usainak zartako bat bezala kolpatu nau. Hesitik behera begiratu eta hiru asto ikusi ditut palmondo artean babesturik, Karibekoa zirudien irudi surrealista batean. Begira geratu zaizkit hirurak. Ez dakit zer prentsatu ote duten nitaz, seguruenik lekuz kanpo nengoela, hemen denek ezagutzen dituzten astoak ikustean harritu egin naizelako. Hor utzi ditut hirurak haien pentsamenduekin.

Aitona ez aurkitzearekin kezkatzen hasia nintzen jada. Hasieran konturatu ez banaiz ere, aitona horrela etxea uztea ez da ohikoa, ez zeukan zentzurik. Donostiara amarekin joan zenetik ez dago pozik, ez dago eroso, baina ez du deus esaten. Amak bera zaintzea eskertzen du, hori badakit. Baina hemen izatea nahiko luke, bere jaioterrian. Hala ere, horrela alde egitea, ez zen bidezkoa. Amarentzat ez.

Bizikletako katea berriro ere aterata zegoela konturatu eta hor geratu naiz une batez, jatetxe fantasmaren atarian, hura konpontzen.

Jatetxe honetan bazkaldu genuen behin, amaren urtebetetzea ospatzeko, ni unibertsitatean hasi baino egun batzuk lehenago. Familia handia elkartu ginen, aitona-amonak, osaba-izebak, baserriko osaba zaharraren familia, lehengusuak, mahai luze baten inguruan denak. Ondo baino hobeto bazkaldu genuen, eta bukatzean, beti egin izan genuen bezala, abesten hasi ginen. Amonak hain gustukoak zituen habanerak, aitona hain gustuko zuen "Edurne", osaba-izebak eta amak hain gustuko zituzten mendi-kantak. Lehengusuak eta ni nerabeak ginen, grazia egiten zigun helduak horrela ikustea, kopa eskuan eta masailak gorri-gorri. Grazia eta lotsa aldi berean.

Guretzat momenturik lotsagarriena ordea aitona aulkian zutik jarri eta astoaren bertsoak botatzen hasi zenean etorri zen. Jatetxe guztia hari begira, purua eskuan, gaztelera eta euskara nahasten dituzten bertso horiek eskaini zizkien han zeuden guztiei, baina batez ere, amonari. Asko gustatzen zitzaizkion bertso horiek amonari. Berak kontatzen zigun gaztetan Amasara igotzen zen bertso paper saltzaile batek kantatzen zituela astoarenak. Amonak gauza asko

kontatzen zizkigun, oso gustuko genuen bera entzutea. Bera zen memoria ona zuena. Hori esaten zuen amak, aitonak memoria txarra izan duela beti. Nik ez dut uste hori denik. Uste dut aitonak oroitzapenak gorde nahi dituela, ozenki esaterakoan ihes egin ez dezaten.

Aitonak hitz egin gutxi, baina kantatu bai, kantatzen du. Eta amonak izugarri disfrutatzen zuen senarrak astoaren bertsoak kantatzen zizkion bakoitzean. Berarentzat kantatzen zituelako aitonak, beti.

Egun hartan, aitona aulkiaren gainean igo zen momentuan eta lotsak hartuta lehengusuek bezala beste aldera begiratu nuenean, ama bere lekuan ez zegoela konturatu nintzen. Ingurura begiratu eta jangelan ere ez nuen ikusi. Kanpora atera nintzen bere bila. Pareko zelaia mugatzen duen hesiaren ondoan zegoela ikusi nuen, geldi, urrutira begira.

Hurbildu nintzenean zertxobait edanda zegoela konturatu nintzen, eta niri bizkarra emateko buelta eman arren begiak gorrituak eta malkoz beterik zituela ikusi ahal izan nuen.

“Zer dezu, ama?”

“Ezer ez.”

“Ama, mesedez.”

“Ze earra dan leku hau, ezta?”

“Ama...”

“Munduko lekuik earrena da, baietz? Zuk ze esangozu, ba. Hau ezta zure tokiya, ezta? Zuk eztezu hemen eon nahi, eztezu gukin geatu nahi. Kanpoa zoaz, eta hoi izangoa bukaera. Geo beste leku batea eta beste batea eta beste batea... danak hau baño polittagok. Zutzat, noski!”

“Ama, mesedez, ez esan txo...”

“Muitzen hasiko zea eta etzea geldittuko. Holakua zea, eztakizu geldik eoten, zure aita bezelakua zea.”

Negarra bortitza bihurtu zen orduan. Ama sorbaldetatik hartzen saiatu nintzen baina ez zidan utzi. Azkar hasi zen bat-batean ibiltzen, errepiderantz, eta ni haren atzetik joan nintzen. Trakets zebilen eta ez zitzaidan zaila egin bera harrapatzea. Atzetik hartu nuen, eskuak haren sorbaldetan, eta gelditu egin zen.

“Ama, lasattu zatez. Nik, zea, nik eztakit noa emango naun bizitzak, ta...”

“Bizitzak ez gattu eamaten, geok hartze ditteu erabakik.”

Buelta eman zuen orduan eta niri begira geratu zen, begiak gorri-gorri, udako arratsalde hartan egiten zuen bero itsaskorragatik izerditan.

“Attona ta amona zaharrak dia, zuk alde ingo zu. Eta ni bakarrik geatuko naiz.”

“Ez ama, zu etzea iñoiz bakarrik eongo. Munduko beste puntan baldin banao re, bueltatuko naiz behar nazun guztitan. Hitz emate izut.”

Eta txikia nintzenean elkarrekin asmatu genuen esku jolasa proposatu nion, irribarrez.

“Zalamerua zea geo.”

Baina jolastu zuen. Eta irribarre egin zuen.

Ez dakit nire promesa sinistu ote zuen. Nik urte batzuetan ahaztu egin dudala uste dut. Agian gaur aitonaarentzat antolatu nahi zuen bazkari horretara joango ez nintzela esatea izan da hurbileneko adibidea.

Malkoak lehortu eta paseo bat eman genuen gero, ama ez baitzegoen jangelara sartu eta besteen aurrean agertzeko moduan. Barre egin genuen, bera erdi mozkor eta biok tontakeriak egiten. Hodeiak behe-behean, erabat itxitako zerua, udako ekaitza etorri zitzaigun gainera.

Oker nengoen ba, amak eta biok elkarrekin paseatu dugu, egun hartako paseo hura, nire buruak zerbaitengatik ezabatuta zeukana. Horretan pentsatzen nengoela, amaren mezu bat jaso dut. Alde zaharrera zihoan berriro eta aitona aurkitzen ez bagenuen poliziarri deituko zion.

Idea ona iruditu zait, eta nik ere presa hartu behar nuelako bizikletan igo, errepidera atera, eta azkarregi jaitsi den furgoneta zuri bati pasatzen utziz Amasako plazarantz hasi naiz pedalei gogor ematen.

Kotxea Kale Berrian aparkatu dut, ez zait axola izan isuna jarriko ote didaten. Lurrera eroritako gauzak poltsan bildu ditut azkar, giltzak, musuzapiak, kartera, eguzkitako betaurrekoen zorroa. Pastak ere bai, nahastuta, eta guztia hartuta kotxetik irten naiz.

Aita ez zegoen Zentroan, koxkan ezta ere, eta etxe zuria inguratuz Kale Nagusian agertu naiz. Beroa jasanezina zen, nire hankek ez zuten jada behar nuen erritmoa jarraitzen eta zorabiatu eta lurrera seko erori aurretik nire atzean zegoen bankuan eseri naiz, Joakin eta biok ezkondu eta alokatu genuen pisua nire aurrean, orain botatzeko dauden etxe horien aurrean. Botatzeko, bertan gertatutako guztia desagerrarazteko. Gure bizitza ere bai. Trenaren txistua entzun dut, urrutian.

Irati alaba bakarra izan da. Horretara bultzatu gintuen bizitzak. Bizitzak ez, gure aukeraketek. Joakinek eta biok hartutako bideek. Berak borrokan itsu inplikatzearabaki zuen, nik bere ondoan irautea.

Hasieran aktiboki parte hartzen nuen nik ere, horretan ezagutu genuen elkar. Baina ni beti mugan ibiltzen nintzen, kontradikzio eta beldurrek aztoratuta, erabat inplikatu gabe, erabat aldendu gabe. Joakin ordea konbentziturik zegoen aukeratutako bidez, eta bertatik zihoan, gehiegizko abiadura hartzen duen tren baten antzera. Bera zenbat eta gehiago inplikatu, nik gero eta gehiago urrunduta nintzen militantziazatik. Biok bestearen aukera errespetatzen genuen. Baina asko eztabaidatzen genuen, modua zein ote zen, zer ote zen eginbeharrekoa. Eztabaida luzeak izaten genituen, ohean bata bestearen ondoan etzanda, maitasunarekin ixten genituen eztabaidak.

Gure herriaren etorkizuna gure eskuetan dago. Hori zen bere esaldirik errepikatuena. Ez zen bestelako esaldia baina, hori baita bizitzaren beraren definizioa. Nik ere gure herriarentzat eraikitzen ari ginen etorkizun horren parte izan nahi nuen, baina beste bide batzuen bila nengibilen, agian beste etorkizun mota baten bila ere bai.

Haurdun geratzea izan zen niretzat etenpuntua, honaino esateko momentua. Gelditu nintzen, aldendu, baina ez desagertu. Honaino hori nirea zen, ez nire inguruan mugitu eta ni astintzen ninduen guztiarena. Erabat urrundu nahi izan banu Joakinengandik ere urrundu behar izango nukeen, eta hori ez zitzaidan burutik pasatzen.

Ez nuen inoiz ezer jakin nahi izan, ez nuen Joakinek deus kontatzerik nahi, ez nuen informaziorik ezagutu nahi. Joakin etxean jaso, maitatu, beste gai batzuez hitz egin, barre egin, eztabaidatu, siesta egin bata bestearen ondoan. Gero joaten ikusten nuen, nora edo zertara zihoan jakin gabe. Berak ere ez zidan kontatu nahi, badaezpada, "segurugo zaude hola". Sabela laztantzen zidan, atetik atera aurretik umea eta niri agur esateko.

Gauzak lasaitu edo berak pixka batez alde batera utzi ote zituen ez dut inoiz jakin, baina Irati jaio zenean inoiz baino gehiago egoten zen etxean gurekin, inoiz baino gutxiago hitz egiten genuen politikari buruz, inoiz baino sekretu gutxiago zeuden gure artean. Nik nabaritzen nuen bere buruan horrek guztiak jarraitzen zuela, baina baretuta nolabait.

Ezin nintzen okerrago egon. Barealdi hura ondoren etorriko zen ekaitzaren aurreko ameskeria bat besterik ez zen izan. Ekaitza etorri zen handik urte batera, nik gutxien imajinatzen nuen momentuan, egun oskarbietan inolako abisurik gabe eztanda egiten duen itsas enbata bezala.

Berehala konturatu nintzen Joakin berriro ere aktiboki ari zela. Ez zen zaila izan, ordu asko ematen zituen etxetik kanpo, etxean zegoenean urduri ibiltzen zen alde batetik bestera, lanera ere zenbait egunetan faltatu izan zela jakin nuen. Aurreko urte eta erdia desberdina izan bazen ere, egoera nahi baino ezagunagoa egin zitzaidan, eta burua prestatu nuen berriro ere tentsioak, urduritasunak, kezkak eta beldurrak etxean sartzen uzteko. Baina nik uste nuena baino arriskitsuagoa zen inguratzen gintuena, eta horretarako ez, ez nengoen prest.

Hamalau egunez egon zen Joakin desagertua. Aurreko egunean afaltzen egon ginen biak, sukaldeko egurrezko mahaiaren inguruan. Iratiri hortzak ateratzen ari zitzaizkion eta negarrak izugarriak ziren, gauak oso neketsuak. Azkenean lokartu zela ospatzeko ardo bat hartu genuen, pijama jantzita, neka-neka eginda. Kopari buelta batzuk eman zizkion, beti egiten zuen bezala. Mahai-zapiak fruta saskiaren ondoan jarri zituen, beti egiten zuen bezala. Platerak garbitu zituen, beti egiten zuen bezala. Dena beti bezala, ezeren seinale berezirik gabe, dena ondo. Goizeko seietan esnatu ninduen, urduri, alde egin behar zuela.

“Ez galdetu, bihotza, mesedez, ez galdetu.”

Iratiri kopetan muxua eman zion, gogor besarkatu ninduen ni.

Hurrengo egunean dardarka agertu nintzen Oriamendin, gurasoen etxean, babes eske. Irati besoetan lorategiko lurrian eserita egon nintzen, han ikusezina izango banintz bezala, erabat aztoratua, gurasoak etxera itzuli ziren arte. Joakin joan zenetik ez zen denbora gehiegi pasa, egun bakar bat, baina nik banekien, ezin hori azaldu, banekien ez zela itzuliko, banekien gure bizitza erabat aldatuko zela momentu horretatik aurrera.

Gure garunarekin eta bihotzarekin egunero bizi garen arren, horiek perfektu ezezagun bihur daitezke egoerak gainditzen gaituenean. Bakoitzak besteari zegokiona behar zuen, bihotzak horren guztiaren arrazoiak, garunak maitasunaren ezabatzea, biak ezinezkoak. Joakin itsu maite nuen, egiten zuena zergatik egiten zuen erabat ulertuz, eta gorroto nuen, egiten zuena zergatik egiten ote zuen ulertu ezinean. Erreakzionatzeko gaitasunik gabe, ezkutatua egon nintzen, Irati nire alboan, Irati txikia nire bihotzaren kontra estutuz uneoro, ateratzen ari zitzaizkion hortzen minarengatik garrasika. Aita eta ama hor egon ziren, eta haiek ere, nik bezala, ez zuten deus galdetu.

“Atxilotu in due. Preso damakiye.”

Hori izan zen, handik bi astetara, aitik esan zuen gauza bakarra, bere diskurtsoak botatzeko gaitasun horrekin, iritziak, kezkek, haserreak, dena delakoak barnean gordez. Aitik Joakin miresten zuen, hori ez zidan inoiz esan, baina nik ziur asko jakin izan dut beti.

Egun hartan Joakinen desagertzea bukatu zen, baina beste desagertze mota bat hasi zen, distantziarena, egunerokotasuna bera gabe eraiki beharrarena, espexera bisitek sortzen ziguten poza eta ernegazioaren arteko borrokarena.

Ez diot Iratiri kontatu, baina atzo Joakinekin elkartu nintzen Tolosan. Ez zen kasualitatez izan, nik deitu nion. Bazkaltzera elkartu ginen, biak bakarrik, hogeita hamar urteren ondoren. Villabonara etorriko zela proposatu zidan, baina ezetz esan nion. Gure iragana giltzatuta zegoen kaleetan berriro ere elkartzea, ez nekien horri aurre egiteko gai izango ote nintzen.

Xanti ohean utzi nuen, lotan. Goizeko hamaikak ziren baina deus ez zuela egiteko eta lasai hartzeko eguna zela esan zidan, ohean buelta eman eta bizkarra erakusten zidalarik. Logelako atean geratu nintzen une batez, hari begira, oraindik erosketa poltsak eskuetan nituela. Lo geratu eta handik segundo gutxitara zurrungaka hasi zen.

Erosketak sukaldeko mahaian utzi eta Joakini deitu nion. Harritu zuen nire deiak, horrela esan zidan, ez zuen halakorik espero. Nik ezta ere. Azken egunetan, baina, harekin pentsatu nuen asko, elkarrekin egoteko ezintasunaren arrazoiak gogoratu nahian.

Bazkaltzea ondo iruditu zitzaion. Tolosan, erabaki nuen nik.

Trenez joan nintzen. Urteak ziren trena hartzen ez nuela. Donostia eta Orio artean bizitzera ohituta, kotxea zen azkenaldian garraiorik erosoena niretzat. Gidatzea gustuko dut gainera, musika entzun, abestu, urrutira joan naitekeenaren sentsazioa. Ez noa urrutira baina, inoiz ez.

Tolosara joateko trena hartzea iraganeko ezusteko egoera horri zentzua ematea zela iruditu zitzaidan, trenez eraiki baikenuen gure erlazioa Joakinek eta biok, erlazioa apurtuta zegoenean

ere, Iratirekin alde batera eta bestera. Hori ere gure erlazioaren parte da, horrek ere kontaktzen du.

“Hogeita bost urte.”

“Ze?”

“Elkar ikusi genuen azkeneko aldiya, oain dala hogeita bost urte.”

“Etzea asko aldatu.”

“Gezurra.”

Irati trenean bakarrik joan zen lehenengo egun hura gogoratu genuen. Iratik hainbeste nahi zuen bere independentzia txiki hori lortu zuen azkenean eta guk gure kontakturako aitzakiarik indartsuena galdu. Ez genituen beste aitzakia batzuk aurkitu.

“Ez genittun bilatu nahi izan.”

Askok hitz egin genuen, Iratiri buruz hitz egin genuen batez ere. Zer moduz ari zen Beasainen, nola moldatzen zen egunero haraino joateko, ea ez ote zuen bertara bizitzera joan nahi, bikoterik ote zuen, asko elkartzen ote ginen, Villabonara joaten ote zen, osasuntsu ote zegoen, gutxitan deitzen zuela aita.

“Lanpetua ibiltzea, bakizu.”

Bazekiela esan zidan. Faltan botatzen zuela, ere bai. Gero inguruko guztiak erreparasatu genituen, aita zer moduz, nebak, bere emaztea, zer moduz Donostian, Villabonako pisua alokatuta daukatenekin zer moduz, zer moduz ni, zer moduz Xantirekin.

“Ondo.”

Aldatua zegoen Joakin, zahar. Baina bera zen, berdina, espetxetik itzuli zen hura. Ondo gogoratzen nuen banandu aurreko hilabeteetan sakon aztertu nuelako gazte hura. Sakonegi, seguruenik. Ez zen nik lehengoz ezagututako mutila, ez zen Iratiri abestiak kantatzen zizkion mutil hura, “ez galdetu, bihotza”, esaten zidan hura. Ez nuen ulertzen ordea zergatik ez nintzen gai izan Joakin berri hori maitatzeko. Agian ez zen hori izan, agian ez genuen denbora nahikoa hartu berriro ere elkar ezagutzeko, agian hainbeste maitatu izan nuen hura beregan ez topatzeak ematen zidan amorruak eta minak ez zidaten utzi aurrean neukan pertsona berri hori ikusten. Postrea jaten ari ginen bitartean orain bai maitatu nezakeela iruditu zait segundo batez.

“Goatze al tzea Iratik trenian beti itte zun jolas harekin? Gaur ez det bate asmatu nik”

Barre egin zuen.

“Etzea hortan iñoiz oso ona izan.”

Trena hartu nuenean nire barnean zeozer aldatu zela sentitu nuen. Itsasoan hildakoarena egitean sentitzen dudana sentsazio berdina eragiten zidan trenaren mugimenduak. Begiak itxi, eta edozein lekutara eramaten uzteko prest nengoen.

Donostian gelditu nintzen, ordea, izan behar zuen bezala. Xantirekin arratsaldeko azken tartea pasa, eta berarekin lo egin, hori zen plana, aita Orion zegoen bitartean.

Donostiara iritsi nintzenean erosketa poltsak mahai gainean zeuden oraindik, hozkailura joan beharreko guztiak udako bero bortitzaren menpe. Zakarrontzira joan ziren denak. Xantirekin ardo batzuk edatera atera ginen. Guri buruz hitz egiteko erabakia hartuta neukan, zertan genbiltzan. Banekien zer esango zuen berak,

“Gazten kontuk dia hoyek. Gu orainian gaude, hobe ez pentsatzia noa goazen.”

Nik esango nioke ez nengoela horrekin ados, asko genuela oraindik bizitzeko, eta hala ez bazen ere oraina hura ez zela ni zoriontsu egiten ninduen.

Ez nuen elkarrizketa puntu horretara eramateko modurik aurkitu. Berba eskas eta sexu saio aspergarri baten ondoren kotxea hartu eta Oriora aitarekin afaltzera joatea erabaki nuen. Berriak ikusi genituen elkarrekin, Amasako txakolindegira batzuk helikopteroz ailegatu zirela. Egun hain ezohiko horrentzat amaierarik egokiena iruditu zitzaidan berri hura.

Furgoneta zuria Elizako autobus geltokian gelditu zen, Praixku bertan jaisteko. Bide osoa eman zuen gizon hori nor ote zen asmatu nahian, baina ezin. Eskerrak eman zizkion herrira jaisteagatik, baina benetan eskertu zuena isiltasuna izan zen, gizonak ez zuelako ahoa itxi segundo bakar batean ere.

Bere ateraldia amaitzeko unea iritsi zen. Oso nekatua zegoen jada eta ez zuen, egia esanda, gehiagorik egiteko. Autobuseko ordutegiak begiratu zituen, baina ez zituen ulertu.

“Aizu, launduko al zeniake? Errekaldea dijuan autobusa noiz dator?”

Neska gazteak gogo onez lagunduko zuela eta, ordutegiak aztertu ondoren, ordu erdi bat itxoin beharko zuela esan zion.

Praixkuri ez zitzaion ideia hobeagorik bururatu koxkan esertzea baino, herrian emango zituen azken minutuak leku kuttun horretan pasatzea, jendearen mugimenduak aztertu eta herriaren bizitza bere begi barnean gordetzeko.

Arnasestuka iritsi zen Irati Amasara. Iturrioxon ura edan eta ingurura begiratu zuen, aitonaren bila. Tabernako terraza jendez beterik zegoen, baina ez zuen inor ezagutu. Amasa leku

ezezaguna zen berarentzat. Jaietara ez bazen, ez zen beste ezertarako igo azkeneko hamar bat urteetan. Irribarre egin zuen festak gogoratzean, hainbesteko alaitasuna, momentu eder asko. Taberna, txosna, soziedadea, Martina's Paf... inguruan irudikatu zituen festetan ibiltzen zituen leku horiek guztiak.

Mugikorra begiratu zuen amaren berririk ote zegoen ikusteko, eta sakelan gorde zuen berriro. Gero bizikleta hartu eta baserrien artean ibiltzen hasi zen. Hura bai eremu ezezaguna, txikia zenetik zapaldu gabekoa. Eta lekuaren edertasunak txundituta utzi zuen. Bat-batean herriaren bihotza topatu izan balu bezala, taupadak azkartzen zizkion herri-bihotza, azkarrago hasi zen pedalei ematen, eta abiadura hartuz askatasuna sentitu zuen, edertasunak inguratuta, oihu egiteko gogoei eutsiz, irribarre zabal ederra aurpegian.

Momentuko katarsiarekin ez zuen nabaritu aldapan gora joatearen esfortzua, baina berriro ere arnasestuka hasi zenean gelditu behar izan zuen, oraindik irribarrea ahoan, begiak malkotuta.

Ingurura begiratu zuen, ardiak eta txoriak besterik entzuten ez ziren puntu batean, garbitegiaren ondoan. Ez zegoen aitonaren arrastorik bertan. Gipuzkoako Astozaleen Elkarteko kamioi txiki urdina bere ondotik pasa zen eta barruan zihoan astoaren arrantza ozenak apurtu zuen hango bakea. Herrira itzultzea erabaki zuen.

Aldapan behera errazagoa izan zen bidea. Haizeak ilea aztoratzen ziolarik minutu gutxitan iritsi zen Otsabiko tunelera. Eliza laranja ikusten zuen beste aldean eta harantz zihoan, baina bat-batean ideiaz aldatu zuen.

“Momentu bat bakarrik.”

Ozenki esan zion bere buruari, edo agian distantzian amari, baimena eskatuko balio bezala, eta Arratzaingo bidea hartu zuen.

Imanol eta Uxoaren terrenoaren sarreran gelditu zuen bizikleta, orain bai erabat blai eginda, arnasestuka bizian, hiltzeko zorian ia. Taldeko mezuak begiratu zituen. Ugari ziren, eta haien artean argazki bat, lagunak mahaia luzearen inguruan, Uxoak moztutako urdaiazpiko zatiak aurpegietan itsatsita. Enekoren ideia, seguru. Barre egin zuen Iratik, eta momentu hartan

terrenotik zetozen barreak entzun zituen, lagunena. Hasperen egin zuen neskak, bidean geldigeldirik, eta mendi muinen gainetik zetorren enbata ikusi zuen. Joateko ordua zen.

“Hurrengon hitz emateizuet azalduko naizela.”

Mezua kuadrillako taldera bidali, bizikleta hartu eta herrira jaitsi zen.

5. ATALA

Denbora nahikoa eman zuen Mirenek Kale Nagusiaren hasierako banku hartan eserita, Iratik bere lehenengo urteak bizitako pisu horren parean. Ez zuen indarrik jarraitzeko, ez zuen energiarik kaleetatik aita bilatzen jarraitzeko. Ezin zuen.

Bankutik altxatu eta poliziari deitzeko mugikorra atera zuen poltsatik. Zenbakia markatu behar zuenean, ordea, zerbaitek gelditu zuen, eta azken aldiz han bueltan zegoen koxkan begiratzea erabaki zuen.

Praixku lasai zegoen koxkan, trankil. Ingurura begiratzen zuen gorputza ia mugitu gabe, irribarre fina ezpainenetan. Eguna luzea baina ederra izan zen, herrira itzultzeak indarra eman zion, bakea. Hanken gainean karpeta ondo helduta zeukan, lehenago aintzat hartu gabeko argazki horiek orain altxor bihurtuta.

Alaba ondoan eseri zitzaionean begiak handi ireki zitzaizkion, mamu bat ikusi izan balu bezala.

“Ze ittezu hemen?”

Mirenek ez zuen azkar erantzun. Aitari begira, begiak malkoz beterik, besarkada suabe bat eman zion, bat-batean zaharragoa zirudien gorputz hura apurtzeko beldurrez. Aitak muxua eman zion kopetan, isilean.

“Eun pasa etorri naiz”, esan zuen azkenean Mirenek, “zu bezela”. Aitaren esku zahar handia bere eskuen artean hartu, eta isilik geratu ziren biak, aurrera begira, geldia, herriaren mugimenduak inguratuta.

“Atta, enaiz goatzen Garmendihaundi nun zeon...”

Praixkuk maitasunez begiratu zuen alaba, eta masaila laztandu zion.

Elizatik ikusi zituen Iratik, eta bizikleta geldituz, kalearen beste aldean geratu zen une batez, irudiak maitemindurik. Aitonaren beste aldean eseri zen motel, amari aitonaren atzetik eskua sorbaldan jartzen ziolarik.

“Hara, denok eskursiyua in deu gaur.”

Ezpaina hozkatu zuen neskak barrerik ez egiteko. Baina Mirenek barre egin zuen aitaren hitz horiekin. Hiruek egin zuten barre azkenean.

“Ondo zaude, attona?”

“Primeran.”

“Nun eon zea?”

“Paseon.”

Ama-alabak elkarri begiratu zioten, erremediorik ez zuen aitonaren hizketa eskasa irribarrez onartuz.

“Attai deitu biharko zeniyoke, Irati, seguru nao faltan botatze zattula.”

“Ingo det, bai.”

“Nere errautsak hemen botatzia nahi det, errekan.” Praixkuk ustekabeen harrapatu zituen beste biak.

“Oriyoa allatuko zea, igerin”, ironiaz Mirenek.

“Amonakin”, Iratik.

“Hoi da. Herriya eta Edurne, biyak.”

Bat-batean haizea mugitzen hasi zen, bortitz. Ingurukoak aztoratu egin ziren, zerura begira jendearen erritmoa azkartu zen.

“Galerna dator, busti ingo gea.”

“Bakizu ze egun dan gaur, atta?”

“Nee urtiak. Ochentaynueve.”

“Ospatu beharko genuke.”

“Pastak dazkat.”

Praixku eta Iratiren harridurarako Mirenek poltsatik pasta kutxa atera zuen, erabat kolpatua eta zikin, eta pastek itxura oso erakargarria ez bazuten ere, pozik sartu zuten eskua hirurek. Ados egon ziren denak honako honetan, ezin zuten aitonaren urteak ospatzeko leku hobeagorik imajinatu.

Trenaren txistua entzun zen, autobusak haien aurretik gurutzatu zuen. Eta hor geratu ziren hirurak, isilik, pasta bat bestearen atzetik jaten, pozik, haien herriko koxkan eserita.

Eta enbatak eztanda egin zuen, azkenean.